



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1998ko otsailaren 24an

15 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

—Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko Foru Lege proiektua. Emendakinak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

—Hauteskundeetako Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren zenbait artikulua aldatzeko Lege proposamena, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkeztua (4. or.).

—Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legeko hainbat artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkeztua (7. or.).

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

—Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzeko Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 29. artikulua aldatzeko prozedurari ekin diezaion, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkeztua (10. or.).

—Erabakia, Nafarroako Gobernua premiatzeko gizarte bazterkeriari buruzko azterlan bat eta lanerako zentroi buruzko txosten juridiko bat bidal ditzan. Gizarte Gaietako Batzordeak onetsia (11. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Foruzaingoaren Tuterako Koartelaren eraikitze proiektua zein fasetan dagoen itauntzen duen galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak egina (12. or.).

—Etxebizitzak eskuratzeko laguntzen arautegiaren aldaketari buruzko galdera, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak egina (12. or.).

- Lurzatien baterakuntza-espeditente zenbaitzuen ebazpenari buruzko galdera, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak egina (13. or.).
- Famili Orientazio eta Sexu Hezkuntzako Zentroetan, basektomia zerbitzuko itxaron zerrendei buruzko galdera, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak egina (14. or.).
- Nafarroako Gobernuak Prentsa Zerbitzuaren euskararen erabilerari buruzko galdera, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak egina (14. or.).
- Aranguren eta Egues artean proiektatu den hiri bioklimatikoari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak egina (15. or.).
- Errepideak zaintzeko zenbait lan esleitzeko irizpideei buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak egina (16. or.).
- Osasun zentroetako haur/pediatra ratioari buruzko galdera, Francisca Catalán Fabo Foru Parlamentari andreak egina (16. or.).
- Administrazio publikoetako langileen eskubide pasiboen erregimena arautzeari buruzko galdera, Francisca Catalán Fabo Foru Parlamentari andreak egina (17. or.).
- Elkarkide eta Tasubinsa zentro okupazionalak emaniko dirulaguntzei buruzko galdera, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak egina (18. or.).
- Batxilergoari eta prestakuntza zikloei dagokien hezkuntza-eskaintzari buruzko galdera, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak egina (19. or.).
- Magnesitas enpresaren isurketa kutsatzaileei buruzko galdera. Idatzizko galdera bihurtzea (20. or.).

G SAILA:**Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:**

- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrariak, administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatze-ko zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdia (21. or.).
- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko euskara itzultzaile-teknikariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatze-ko zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdia (26. or.).
- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptoreak, administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatze-ko zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdia (30. or.).

A Saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko Foru Lege proiektua

EMENDAKINAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko otsailaren 17an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Biltzarreko Erregelamenduko 106. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko Foru Lege proiektuari emendakinak aurkezteko

epea **1998ko otsailaren 27ko eguerdiko hamaiak arte** luzatzea.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea”.

Iruñean, 1998ko otsailaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

B Sailsa:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Hauteskundeetako Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren zenbait artikulua aldatzeko Lege proposamena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko otsailaren 17an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, eta Espainiako Konstituzioaren 87.2 artikulua xedatutakoaren babesean, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak hurrengo Lege proposamena aurkeztu du: Hauteskundeetako Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren zenbait artikulua aldatzen dituen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. eta 204. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Bozeramaileen Batzarra entzun ondoren, hona ERABAKIA:

Lehena. Hauteskundeetako Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren zenbait artikulua aldatzeko Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkarian argitara dadin agintzea.

Bigarrena. Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145.2 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 1998ko otsailaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguí

Hauteskundeetako Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren zenbait artikulua aldatzeko Lege proposamena

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 145. eta 204. artikuluetan ezarritakoaren babesean, Biltzarreko Osoko Bilkurari proposatzen dio aintzakotzat hartzeko Hauteskundeetako Araubide Orokorri buruzko ekainaren

19ko 5/1985 Lege Organikoaren zenbait artikulua aldatzeko Lege Organikorako proposamena eta bera Gorte Nagusietara igortzea, han izapida dadin Nafarroako Foru Komunitatearen Lege Proposamen gisa.

Espainiako Konstituzioaren 87.2 artikulua ahalmena ematen die Autonomi Erkidegoetako Biltzarrei Gobernuari eskatzeko lege proiektu bat onetsi dezan edo Kongresuko Mahaiari lege proposamen bat igor diezaion, Biltzar hartako hiru kideri eskuordea emanez ekimen horren defentsa egiteko Kongresuan.

Diputatuen Kongresuko Erregelamenduaren 108. eta 127. artikuluek lege-ekimen hori izapidatzeko prozedura arautzen dute.

Beste aldetik, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak 204. artikuluan xedatzen du Konstituzioaren 87.2 artikulua aipatzen dituen lege proposamenak lantzeko ohiko legegintza-jardunbideari buruzko VI. Tituluko II. Kapitulua ezarritakoari jarraituko zaiola, izan ere jardunbide horrek Parlamentari Taldeek egindako lege proposamenak ere barne hartzen dituelako.

Aipatu xedapenen babesean, Biltzarreko Osoko Bilkurari eskatzen zaio ondotik aipatzen dena aintzakotzat hartu eta Gorte Nagusietan izapida dezan:

ZIOEN AZALPENA

Espainiako bizi politikoan nagusi izan behar duten printzipioetako bat bizi politikoan gizartearen protagonismoa bultzatzea da, partehartze handiagoko demokrazia bat lortzeko. Helburu hori erdiesteko saihestezina da hauteskunde-sistema alda dadila proposatzea, zerrenda irekien bidezko hautaketa ahalbidetuz.

Gaur egun, partehartze politikoa pertsona asko biltzeko ahalmena daukaten alderdien bitartez burutzen da. Baina une honetan esan dezakegu alderdiak ez direla gauza izan zerrenda itxi eta

blokeatuen sistemak demokraziaren fase honetan hiritar askorengan sortutako etsipena gainditu ahal izateko bitartekoak ezartzeko.

Benetan erreformazalea eta eraberritzailea den jarrera batek saiatu behar du gizarteak eskatzen duenaz jabetzen, onartzen eta errealtate politiko bihurtzen, gizartean beharrezkoa den hori politikak posible egin behar duelako.

Alderdi politikoek jabetu egin behar dute gizarteak eskatzen duen eraldaketaz. Baita ere, azken hori dinamizatu, gidatu eta etorkizunerantz eraman behar dute. Zerrenda itxi eta blokeatuen sistemarekin, alderdiak bilakatzen dira botere-lorpenei eusteko oligarkiak, eta hala bezerokeria nola euren interes-zirkuluan mesedeen eta eraginien alde egitea sustatzen dute. Ez dute benetan aztertzen hauteskunde-zerrenda osatuko duten pertsonetako bakoitzak hiritarren partehartzerako bide izateko balio izango duen, edo gizartearen eskaerak entzun edo horren bizipenak ulertuz gizarte osoa hobetzea lortzen saiatuko den.

Horregatik, alderdi politikoek benetan duten ordezkagarritasuna eta horien botoemaileak ordezkatzeko pertsonarik egokienak uztartzea ahalbidetzen duen hauteskunde-sistema batek ziurta dezake partehartze handiagoa, gizartearen ordezkapen demokratiko hobe eta bertako botoemaileen artean benetan onarpenik handiena duten pertsonak egotea, botere-talde alderdizaleen kontrola gaindituz. Azken finean, helburua hau da: alderdien zuzeneko ordezkapen-sistema mantentzea, egungo hauteskunde-sistemaren arabera, eta alderdi bakoitzeko hautagaien ordena ezartzeko sistema aldatzea, Lege honetatik aurrera alderdi bakoitzaren botoemaile diren hiritarrek erabakiko baitute ordena hori.

Lehen artikulua. 46. artikulua 3. idazatia eta 48. artikulua 2. idazatia horrela idatziko dira:

1. 46.3 artikulua. Aurkezpena zerrenden bitartez egin behar denean, zerrenda horietako bakoitzak, gehienez ere, hautatu behar diren karguak adina hautagai izango ditu.

2. 48.2 artikulua. Hautagaien zerrenden kasuan, aldarrikapenaren ondoren gertatzen diren bajak, ondoz ondoko hautagaiek beteko dituztela ulertuko da.

Bigarren artikulua. Artikulu berri bat sartzen da 85. artikulua ondotik. Testu hau izango du:

85. bis artikulua. 1.- Zerrendetako boto-txartelatan ondokoak ageriko dira modu ikusgarrian: alderdiaren, koalizioaren edo federazioaren ikurra eta izena eta hautagaien izenak ordena albatetikoan.

2.- Hautagai bakoitzaren ezkerrean lauki txiki bat egonen da, hautesleek hautatu nahi dituztenak markatu ahal izateko.

3.- Hautesle bakoitzak hauteskunde barruti horretan hautatu behar diren kideak zati bi eginda ateratzen den zenbatekoa adina hautagai markatu ahal izango ditu. Zenbaki frakzionario bat balitz, bat gehiago markatu ahal izango da.

Hirugarren artikulua. 95. artikuluko 4. idazatia eta 96. artikuluko 1 eta 2. idazatiak honela idatzita geratuko dira:

1.- 95.4 artikulua. Boto-zenbaketa honela egingo da: Lehendakariak boto-paperak banaka aterako ditu hautesontzitik, eta ozenki irakurriko ditu hautagaitzaren izena eta markaturiko hautagaien izenak. Lehendakariak, boto-txartel bakoitza irakurri ondoren, batzordekideei, ikuskatzaileei eta ahaldunei erakutsiko die.

2.- 96.1 artikulua. Eredu ofizialaren ezberdina den boto-txartelean edo gutunazalean emandako botoa deuseza da; baita gutunazalik gabeko boto-txartelean emandakoa edo hautagaitza ezberdineko boto-txartel bat baino gehiago dituen gutunazalean emandakoa ere, eta hauteskunde barruti horretarako ezarri den hautagaien kopurua gainditzeko duena ere bai.

3.- 96.2 artikulua. Diputatuen Kongresurako, Europako Parlamenturako, Udaletarako eta Irletako Kabildoetarako hauteskundeetan boto deuseza izanen da hauteskunde barrutiari dagokiona baino hautagai gehiago markatuta dituen ere.

Laugarren artikulua.- 163. artikulua honela idatzita geratuko da:

1.- Hautesle bakoitzak boto-txartel bakarra, alderdi politiko, koalizio edo federazio bakar batea, ipiniko du. Hauteskunde barruti horretan hautatu behar diren diputatuak zati bi eginda ateratzen den zenbatekoa adina hautagai markatuz. Zenbaki frakzionario bat balitz, bat gehiago markatu ahal izango da.

2.- Boto-txartelak zenbatu egingo dira, aurkezturiko hautagaitza bakoitzari barruti bakoitzean dagokion eserleku-kopurua zehazteko. Boto-txartel bakoitzean, hautagai bakoitzaren boto-kopurua zenbatuko da, hautagaitza horri dagokion eserlekuak beteko dituzten pertsonak zehazteko.

3.- Zenbakitaren emaitzen arabera eserleku-esleipena honako arau hauei jarraituz egingo da:

a) Barrutian emandako baliozko botoen % 3 gutxienez lortu ez duten hautagaitzak ez dira kontuan hartzen.

b) Gainontzeko hautagaitzek lorturiko boto-kopuruak handienetik txikienera ordenatzen dira, zutabe batean.

c) Hautagaitza bakoitzak lorturiko boto-kopurua hainbat zenbakiren artean zatitzen da, 1, 2, 3 eta abarretik hasita, barrutiari dagokion eserleku-kopurua bestekoa den zenbakiraino, eta koadro bat egiten da. Eserlekuak esleitzen zaizkie koadroan zatidura handienak lortzen dituzten hautagaitzei, handienetik txikienerako hurrenkeran.

d) Zatiduren zerrenda horretan bi berdinak baldin badira, hautagaitza ezberdinetakoak izanik, eserlekua guztira boto gehien lortu duenari esleituko zaio. Guztizko boto-kopuru berarekin bi hautagaitza badaude, lehen berdinketa zozketa bidez ebaztuko da, eta hurrengoak alternatiboki.

4.- Hautagaitza bakoitzari dagozkion eserlekuak honela esleituko dira:

a) Hautagaitzan dauden hautagaiak handienetik txikienera ordenatzen dira, hautagaiaren izenaren ezker aldean hautesleek eginiko marka-kopurua adinakoa den boto-kopuruaren arabera.

b) Hautagaitzari dagozkion eserlekuak boto pertsonal gehien lortu duten hautagaiek eskuratuko dituzte.

c) Hautagai bi edo gehiago boto pertsonalen kopuruan berdinduta baldin badago, eserlekua adin handienekoak eskuratu du, ondoren gazteenak, ondoren adin handienekoak, eta horrela elkarren segidan.

5.- Ceuta eta Melillako barrutietan, boto gehien lortu dituen hautagaia aldarrikatuko da.

Bosgarren artikulua.- 164. artikuluko 1. idazatia eta 172. artikuluko 2. idazatia honela idatzita geratuko dira:

1.- 164.1 artikulua.- Diputatu baten heriotza, ezgaitasun edo errenuntzia gertatzen baldin bada, eserlekua zerrenda berean boto pertsonal gehien lortzeagatik hala dagokion hurrengo hautagaiari esleituko zaio”.

2.- 172.2 artikulua.- Diputatuak hautatzeko boto-txartelek honako aipamen hauek izango dituzte: hautagaitza aurkezten duen alderdi politiko, federazio, koalizio edo hautesle-elkartearen izena, sigla eta ikurra; hautagaien izen-abizenak ordena alfabetikoan eta, hala bada, 46.7 artikulua aipatzen duen zirkunstantzia. Hautagai bakoitzaren izenaren aurretik lauki bat egongo da, hautesleak botoa zein hautagairi (bati zein gehiagori) ematen dion bertan gurutze baten bidez adierazi ahal izan dezan.

Seigarren artikulua.- 182. artikuluko lehen idazatia honela idatzita geratuko da:

Zinegotzi baten heriotza, ezgaitasun edo errenuntzia gertatzen baldin bada, eserlekua zerrenda berean boto pertsonal gehien lortzeagatik hala dagokion hurrengo hautagaiari esleituko zaio.

Zazpigarren artikulua.- 196 artikuluaen a eta c idazatiak honela idatzita geratuko dira.

1.- 196. artikulua. a) Hautagai izan daitezke dagozkien hautagaitzetan boto pertsonal gehien lortu dituzten zinegotzi guztiak.

2. 196. artikulua. c) Horietako inork ez badu lortzen aipatutako gehiengoa, alkate aldarrikatuko da kasuan kasuko udalean herritarren boto gehien lortu duen zerrendako boto pertsonal gehien izan dituen zinegotzia.

Zortzigarren artikulua.- 201. artikuluko 7. idazatia, 217. artikulua, 220. artikuluko 2 idazatia eta 221. artikuluko 3. idazatia honela idatzita geratuko dira:

1.- 201.7 artikulua.- Irlako Kabildoaren Lehendakaria bere kargutik kendu daiteke zentsura mozio baten bidez. Mozio hori 197. artikuluan ezarritakoaren arabera izango da. Lehendakari kargurako hautagaia bere hautagaitzan boto pertsonal gehien lortu dituzten irlako kontseilarietatik edozein izan daiteke.

2. 217. artikulua.- Europako Parlamentuko Diputatu baten heriotza, ezgaitasun edo errenuntzia gertatzen baldin bada, eserlekua zerrenda berean boto pertsonal gehien lortzeagatik hala dagokion hurrengo hautagaiari esleituko zaio.

3. 220.2 artikulua. Hautagaitzak hautagaien zerrenda osoen bidez aurkeztu beharko dira, alderdiak, federazioak, koalizioak edo hautesle-elkarteak 221.4 artikuluan aurreikusitako aukeraz baliatzaren kasuan izan ezik. Kasu horretan zerrendak hirurogei hautagai arte bil ditzake.

4. 221.3 artikulua. Halaber, hautagaitza osatzen duten hautagaien izen-deiturak dituen zerrenda osoa ere bildu behar dute. Hala behar izanez gero, 46.7 artikulua aipatzen duen zirkunstantzia ohartarazi daiteke.

Xedapen indargabetzailea.- Foru Lege honean ezarritakoarekin bat ez datozen xedapen guztiak indargabetuak geratzen dira.

Azken xedapena.- Foru Lege honek Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra.

Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legeko hainbat artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko otsailaren 17an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legeko hainbat artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozera-maleen Batzarra entzun ondoren, hona ERABAKIA:

Lehena. Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legeko hainbat artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkarian argitara dadin agintzea.

Bigarrena. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145.2 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 1998ko otsailaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legeko hainbat artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentari Taldeak, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari Buruzko Lege Organikoko 19. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 124.1.b. eta 145.1.b. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako Lege-ekimen hau aurkeztu du, Mahaiak gogoan har dezan eta ondoren izapida dadin.

ZIOEN AZALPENA

Espainiako bizi politikoan nagusi izan behar duten printzipioetako bat bizi politikoan gizartearen protagonismoa bultzatzea da, partehartze handiagoko demokrazia bat lortzeko. Helburu hori erdiesteko saihestezina da hauteskunde-sistema

alda dadila proposatzea, zerrenda irekien bidezko hautaketa ahalbidetuz.

Gaur egun, partehartze politikoa pertsona asko biltzeko ahalmena daukaten alderdien bitartez burutzen da. Baina une honetan esan dezakegu alderdiak ez direla gauza izan zerrenda itxi eta blokeatuen sistemak demokraziaren fase honetan hiritar askorengan sortutako etsipena gainditu ahal izateko bitartekoak ezartzeko.

Benetan erreformazalea eta eraberritzailea den jarrera batek saiatu behar du gizarteak eskatzen duenaz jabetzen, onartzen eta errealitate politiko bihurtzen, gizartearen beharrezkoa den hori politikak posible egin behar duelako.

Alderdi politikoei jabetu egin behar dute gizarteak eskatzen duen eraldaketaz. Baita ere, azken hori dinamizatu, gidatu eta etorkizunerantz eramane behar dute. Zerrenda itxi eta blokeatuen sistemarekin, alderdiak bilakatzen dira botere-lorpeni eusteko oligarkiak, eta hala bezerokeria nola euren interes-zirkuluan mesedeen eta eraginean alde egitea sustatzen dute. Ez dute benetan aztertzen hauteskunde-zerrenda osatuko duten pertsonetako bakoitzak hiritarren partehartzerako bide izateko balio izango duen, edo gizartearen eskaerak entzun edo horren bizipenak ulertuz gizarte osoa hobetzea lortzen saiatuko den.

Horregatik, alderdi politikoei benetan duten ordezkagarritasuna eta horien botoemaileak ordezkatzeko pertsonarik egokienak uztartzea ahalbidetzen duen hauteskunde-sistema batek ziurta dezake partehartze handiagoa, gizartearen ordezkapen demokratiko hobe eta bertako botoemaileen artean benetan onarpenik handiena duten pertsonak egotea, botere-talde alderdizaleen kontrola gaindituz. Azken finean, helburua hauxe da: alderdien zuzeneko ordezkapen-sistema mantentzea, egungo hauteskunde-sistemaren arabera, eta alderdi bakoitzeko hautagaien hurrenkera ezartzeko sistema aldatzea, Lege honetatik aurrera alderdi bakoitzaren botoemaile diren hiritarrek erabakiko baitute ordena hori.

Lehenengo artikulua.- 10. artikulua honela idatzita geratzen da:

“10. artikulua.- 1.- Hautesle bakoitzak boto-txartel bakarra, alderdi politiko, koalizio, federazio edo hautesle-elkarte bakar batena, ipiniko du, gehienez hogeita bost hautagai markatuz.

2.- Boto-txartelak zenbatu egingo dira, aurkezturiko hautagaitza bakoitzari dagokion eserleku-kopurua zehazteko. Boto-txartel bakoitzean, hautagai bakoitzaren boto-kopurua zenbatuko da, hautagaitza horri dagozkion eserlekuak beteko dituzten pertsonak zehazteko.

3.- Zenbaketaren emaitzen araberrako eserleku-esleipena honako arau hauei jarraituz egingo da:

a) Barrutian emandako baliozko botoen %3 gutxienez lortu ez duten hautagaitzak ez dira kontuan hartuko.

b) Gainontzeko hautagaitzek lorturiko boto-kopuruak handienetik txikienera ordenatzen dira, zutabe batean.

c) Hautagaitza bakoitzak lorturiko boto-kopurua hainbat zenbakiren artean zatitzen da, 1, 2, 3 eta abarretik hasita, barrutiari dagokion eserleku-kopurua bestekoa den zenbakiraino, eta koadro bat egiten da. Eserlekuak esleitzen zaizkie koadroan zatidura handienak lortzen dituzten hautagaitzei, handienetik txikienerako hurrenkeran.

d) Zatiduren zerrenda horretan bi berdinak baldin badira, hautagaitza ezberdinetakoak izanik, eserlekua guztira boto gehien lortu duenari esleituko zaio. Guztizko boto-kopuru berarekin bi hautagaitza badaude, lehen berdinketa zozketa bidez ebartziko da, eta hurrengoak alternatiboki.

4.- Hautagaitza bakoitzari dagozkion eserlekuak honela esleituko dira:

a) Hautagaitzan dauden hautagaiak handienetik txikienera ordenatzen dira, hautagaiaren izenaren ezker aldean hautesleek eginiko marka-kopurua adinakoa den boto-kopuruaren arabera.

b) Hautagaitzari dagozkion eserlekuak boto pertsonal gehien lortu duten hautagaiek eskuratuko dituzte.

c) Hautagai bi edo gehiago boto pertsonalen kopuruan berdinduta baldin badago, eserlekua adin handienekoak eskuratu du, ondoren gazteenak, ondoren adin handienekoak, eta horrela elkarren segidan.

Bigarren artikulua.- 11. artikulua honela idatzia geratuko da:

“11. artikulua.- Foru Parlamentari baten heriotza, ezgaitasun edo errenuntzia gertatzen baldin bada, zerrenda berean botu pertsonal gehien lortzeagatik hala dagokion hurrengo hautagaiari esleituko zaio eserlekua”.

Hirugarren artikulua.- 18. artikuluari beste bi idazati gehituko zaizkio, honela diotenak:

“2bis.- Zerrenda bakoitza gehienez ere berrogeita hamar hautagaiz osatua egongo da.

2 ter.- Aldarrikapenaren ondoren gertatzen diren bajak hurrengo hautagaiek beteko dituztela ulertuko da.”

Laugarren artikulua.- 27. artikulua honako testu hau izango du:

“27. artikulua.- Boto-txartelak honako aipamen hauek izango dituzte:

a) Hautagaitza aurkezten duen alderdi politiko, federazio, koalizio edo hautesle-elkartearen izena, sigla eta ikurra.

b) Hautagaien izen-abizenak ordena alfabetikoan eta, hala bada, Hauteskunde Araubide Orokorreko Lege Organikoko 46.7. artikulua aipatzen duen zirkunstantzia.

c) Hautagai bakoitzaren izenaren aurretik lauki bat egongo da, hautesleak botua zein hautagairi (bati zein gehiagori) ematen dion bertan gurutze baten bidez adierazi ahal izan dezan.

d) Hautesle bakoitzak gehienez hogeita bost hautagai markatu ahal izango ditu.”

Bosgarren artikulua.- 35. artikuluari bi idazati erantsiko zaizkio, zuzenean lehenengo puntuaren ondoren, puntu hori bi puntu bihurtuz:

“1.- Botu-zenbaketa honela egingo da: Lehendakariak boto-paperak banaka aterako ditu hautesontzitik, eta ozenki irakurriko ditu hautagaitzaren izena eta markaturiko hautagaien izenak. Lehendakariak, boto-txartel bakoitza irakurri ondoren, batzordekideei, ikuskatzaileei eta ahaldunei erakutsiko die.

2.- Eredua ofizialaren ezberdina den boto-txartelean edo gutunazalean emandako botoa deuseza da; baita gutunazalik gabeko boto-txartelean emandakoa edo hautagaitza ezberdineko boto-txartel bat baino gehiago dituen gutunazalean emandakoa ere, eta hogeitabost hautagai baino gehiago markatzen dituen ere bai.”

Testuaren gainontzekoa mantendu egingo da, 3. idazati gisa.

Xedapen indargabetzailea.- Foru Lege honean ezarritakoarekin bat ez datozen xedapen guztiak indargabetuak geratzen dira.

Azken xedapena.- Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra.

E SAILA:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzeko Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 29. artikulua aldatzeko prozedurari ekin diezaion

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

«Nafarroako Demokratik Elkargunea» Parlamentari Taldeak hurrengo mozioa aurkeztu du: Nafarroako Gobernua premiatzekoa, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 29. artikulua aldatzeko prozedurari ekin diezaion. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko otsailaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariet emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratik Elkargunea Parlamentari Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduaren 192. artikulua babesean, ondoko mozioa aurkezten du Osoko Bilkuran izapida dadin.

LORAFNAREN 29. artikulua Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuak Lehendakaria aukeratzeko prozedura bi modutara arautu zuen: Nafarroako Parlamentuko gehiengo nahikoaren laguntza daukan izangaiaren inbestiduraren bidez edo botu gehien lortu duen zerrendako izangaiaren aldeko inbestidura eginez, hurrenez hurreneko bozketak burutu ondoren izangaietako inork ere ez badu Biltzarrak inbestitzea lortzen.

Formula hori ez da ohikoa demokrazia parlamentarioan eta inboluzio autonomikoa gertatu zen garai historiko baten ondorioa da. Izangaiak Parlamentuan gehiengoa ez eduki arren inbestidura egiten dela bermatzen badu ere, Biltzarrak dese-

gin gabe, parlamentu-sistema hondamendira darama, argi eta garbi; erakundeetan ezegonkortasuna izateko arriskua eta botu gehien dituen taldea zain geratzeko aukera ere badakartza, inbestiduraren eta laguntza parlamentarioen bila jardun beharrean, izan ere, azkenean, gobernura iritsi egiten delako legearen automatismoari esker.

Azpirarratzekoa da komunitate historikoetatik bakarrik ere ez duela antzeko sistemarik; alderantziz, haietan inbestidura gertatzen da Parlamentarioek inbestitzen den izangaiari ematen dioten berrespenari esker, izan ere behar duen gehiengoaren laguntza duelako.

Bestalde, LORAFNAREN zurruntasun handia ematen dio prozedura arautzeko erari berari ere: Estatuko Gobernuak eta Estatuko Gorteez esku hartu behar dute, nahiz eta bere autogobernurako erakundeak araupetzea eta antolatzea autonomiaren eskumena izan behar diren. Horrexegatik, Nafarroako Parlamentuari, eta ez beste inori, dagokio Lehendakaria hautatzeko sistema ezartzeta, antolaketa autonomikoaren xedapen-printzipioa Foru Komunitatearen eskuetan, eta ez beste inoren eskuetan, egon dadin, bere Parlamentuaren bitartez.

Hori guztia dela-eta, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak ondoko erabaki proposamena har dezan proposatzen dugu:

“Nafarroako Parlamentuak Foru Komunitateko Gobernua premiatzen du Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 29. artikulua aldatzeko prozedurari ekin diezaion. Ondokoa izanen da haren idazketa berria:

29. artikulua.1.- Foru Diputazioko lehendakaria Parlamentuak hautatuko du, bere kideen artean, eta Erregek izendatuko.

2.- Nafarroako Parlamentuak Foru Lege batez zehaztuko du Lehendakaria nola hautatu.

Parlamentuaren erabaki hau betetzeko, errekerimendua egiten zaio Nafarroako Gobernuko lehendakariari Estatuko Gobernuko lehendakari jaunari jakinarazi diezaion hori, eta eska diezaion

behar diren negoziazioetan hasteko, Gorte Nagusiek eta Nafarroako Parlamentuak izapidatu eta onets dezaten LORAFNaren 29. artikuluaaren proposamenaren aldaketa.”

Iruñean, 1998ko urtarrilaren 12an

Bozeramailea: Juan Cruz Alli Aranguren

Erabakia, Nafarroako Gobernua premiatzeko gizarte bazterkeriari buruzko azterlan bat eta lanerako zentroi buruzko txosten juridiko bat bidal ditzan

GIZARTE GAIETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Biltzarreko Erregelamenduaren 112. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean hauxe argitaratzeko agindu da: “Erabakia, Nafarroako Gobernua premiatzeko gizarte bazterkeriari buruzko azterlan bat eta lanerako zentroi buruzko txosten juridiko bat bidal ditzan”. Erabaki hori Gizarte Gaietako Batzordeak onetsi zuen 1998ko otsailaren 18ko bilkuran.

Iruñean, 1998ko otsailaren 19an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Erabakia, Nafarroako Gobernua premiatzeko gizarte bazterkeriari buruzko azterlan bat eta lanerako zentroi buruzko txosten juridiko bat bidal ditzan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Unibertsitate Publikoan gizarte bazterkeriari buruz egiten ari den azterlana eta ibiltarientzako lanerako zentro ale-galetako egoera arautzeari buruzko azterlan juridikoa ere parlamentario guztiei emateko. Hori guztia hiru hilabeteko epean.

F Sails:
GALDERAK

Foruzaingoaren Tuterako Koartelaren eraikitze proiektua zein fasetan dagoen itauntzen duen galdera

JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko otsailaren 17an egindako bilkuran, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Foruzaingoaren Tuterako Koartelaren eraikitze proiektua zein fasetan dagoen itauntzen duen galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1998ko otsailaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Juan Cruz Alli Aranguren, Nafarroako Demokraten Elkargunea Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, honako galdera hau egiten du, Biltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta

hurrengoetan ezarritakoaren babesean, idatziz erantzun dakion.

Nafarroako Gobernuak Foruzaingoaren koartela eraikitze asmoa du Tuteran. Honako hau jakin nahi da:

1- Zein fasetan dago eraikitze proiektua?

2- Zein pauso eman dira gaurdaino aipatutako koartela eraikitze?

3- Hiritarrendandik gertu egonen al da koartela?

4- Hiriguneetatik gertu egonen al da koartela?

5- Halaber, Nafarroako Gobernuko Barne Departamentuak bere eskura dituen proiektuari buruzko txosten teknikoak ere eskatzen dira.

Iruñean, 1998ko otsailaren 10ean

Foru Parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren

Etxebizitzak eskuratzeko laguntzen arautegiaren aldaketari buruzko galdera

«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko otsailaren 17an egindako bilkuran, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak etxebizitzak eskuratzeko laguntzen arautegiaren aldaketari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1998ko otsailaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun dakion:

Etxebizitzetarako laguntzak aldatzen dituen eta Nafarroan etxebizitza arloko jarduketa babesgarriak finantzatu eta bultzatzeko neurriei buruzko testu bategina onesten duen 1997ko apirilaren 14ko 100/1997 Foru Dekretuaren 10. artikulua ezarri zuen etxebizitzaren kostu errearen zazpi-renera, eraikin atxikiak kontuan hartu gabe, iristen ez den zerga-oinarria duten pertsonak ezin izanen dituztela Foru Dekretu honek aipatzen dituen laguntza publikoak hartu...

Era berean, aipatu Foru Dekretuak zehazten du zerga-oinarri horrek justu dirulaguntza eskatzen den unearen aurrekoa beharko duela izan (norberaren erabilpenerako sustatzaileek behin-behineko kalifikazioa eskatzen duten unearen

aurrekoa edo, gainontzeko kasuetan, etxebizitzak erosteko kontratuen ikus-onespena eskatzen den unearen aurrekoa).

Indarra duen legediak etxebizitza erosten den unearen aurreko zerga-ekitaldia hartzen duenez dirulaguntza publikoak lortzeko eskubidea zehazteko garaian, gerta daiteke etxebizitza erosteko unean haren kostu errearen zazpi halako diren dirusarrerak ez dituzten pertsonak laguntza horiez ezin baliatzea.

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

-Uste al du Nafarroako Gobernuak egokia dela arauteria aldatzea egoera hori aintzat hartu ahal izateko, eta tratamendu bat ezartzeko, kasuan kasurako ezarri diren dirulaguntzak eskuratzeko modua ematen duena?

Iruñean, 1998ko otsailaren 11n

Bozeramailea, José Miguel Nuin Moreno

Lurzatiaren baterakuntza-espeditze zenbaitzuen ebazpenari buruzko galdera

«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko otsailaren 17an egindako bilkuran, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak lurzatiaren baterakuntza-espeditze zenbaitzuen ebazpenari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1998ko otsailaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan

ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun dakion:

1.-Zein prozedura eta esleipen modu erabili da Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuan 1996 eta 1997 urteetan lurzati antolamenduko espeditzeak erabakitzeke?

2.- Zenbat jarduketa esleitu zaizkie helbidea Nafarroako Foru Komunitatean duten enpresei eta zenbat Nafarroaz kanpoko enpresei?

3.- Administrazio baldintza partikularren pleuetan ezarri al da esleitzeko irizpide gisa esleipena hartzen duen enpresak lurzati antolamendua bilakaeraren jarraipena egin behar duela, behin lurzati antolamendu hori burutu ondoren?

Iruñean, 1998ko otsailaren 11n

Bozeramailea: José Miguel Nuin Moreno

Famili Orientazio eta Sexu Hezkuntzako Zentroetan, basektomia zerbitzuko itxaron zerrendei buruzko galdera

«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko otsailaren 17an egindako bilkuran, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak Famili Orientazio eta Sexu Hezkuntzako Zentroetan, basektomia zerbitzuko itxaron zerrendei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1998ko otsailaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan

ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuaren menpeko Famili Orientazio eta Sexu Hezkuntzako zentroek (FOSHZ) ematen dituzten prestazioen artean basektomia zerbitzua dago. Horretan itxaron zerrenda luzeak omen daude.

Hori dela eta, jakin nahi da:

– Zein da, batezbeste, basektomia bat egiteko eskaera egiten denetik zerbitzu hori ematen den arte itxaron behar den denbora Nafarroako Gobernuaren menpeko Famili Orientazio eta Sexu Hezkuntzako zentro bakoitzean, 1997ko abenduaren 31n?

Iruñean, 1998ko otsailaren 11n

Bozeramailea: José Miguel Nuin Moreno

Nafarroako Gobernuko Prentsa Zerbitzuaren euskararen erabilerari buruzko galdera

«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko otsailaren 17an egindako bilkuran, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak Nafarroako Gobernuko Prentsa Zerbitzuaren euskararen erabilerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1998ko otsailaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuko Prentsa Zerbitzuak bere lanean eta berriak emateko orduan, hizkuntza bakar bat erabiltzen du, Foru Hobetzearen 9.

artikuluak bi hizkuntzaren ofizialtasuna aitortzen duen arren; zehazki, gaztelania erabiltzen du soilik, euskara alde batera utzita erabat.

Ez du ematen egoera horren arrazoia zerbitzu horretan berriak euskaraz eman ahal izateko giza baliabiderik ez egotea denik; izan ere prentsa zerbitzuan euskara dakiten langileak egon bai baitaude, eta berriki euskaraz zekien langile bat hartze-ko deialdia egin zen.

Hori dela eta, jakin nahi da:

1. Uste al du Nafarroako Gobernuak zuzena eta egokia dela Prentsa Zerbitzuak bere lan guztia egitea Foru Hobekuntza Legearen 9. artikulua ofizialtzat aitortzen dituen bi hizkuntzetatik bakar batean?

2. Nafarroako Gobernuak jarraibiderik eman al dio Prentsa Zerbitzuari soilik gaztelania erabil dezan bere lanetan?

3. Uste al du Nafarroako Gobernuak Prentsa Zerbitzuan langile gutxiegi daudela euskaraz lan egiteko eta berriak euskaraz emateko?

Hala bada, zerbitzu hori hornitu behar al du euskaraz aritu ahal izateko behar diren baliabide guztiez?

4. Zein epetan uste du Nafarroako Gobernuak has daitekeela Prentsa Zerbitzua berriak euskaraz ematen?

Iruñean, 1998ko otsailaren 11n

Bozeramailea: José Miguel Nuin Moreno

Aranguren eta Egues artean proiektatu den hiri bioklimatikoari buruzko galdera

JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko otsailaren 17an egindako bilkuran, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Aranguren eta Egues artean proiektatu den hiri bioklimatikoari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1998ko otsailaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Juan Cruz Alli Aranguren, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dakion.

Nafarroako Gobernuak Aranguren eta Egues artean eraikitzea proiektatu duen hiri bioklimatikoari buruz, ondokoa jakin nahi da:

1- Zer ikerlan egin ditu Nafarroako Gobernuak hiri bioklimatikoari buruz? Horietatik Lurralde Antolamendu Departamentuak eginikoa eduki nahi da.

2- Zein izanen da hiri bioklimatikoaren etorkizun administratiboa?

3- Ba al dator bat hiri bioklimatikoaren Iruñerriko eskualde-arauekin?

4- Pentsatu al du Nafarroako Gobernuak, edo bere edozein zerbitzu teknikok, hiri bioklimatikoaren proiektatua dagoen kokalekuaz gain, beste lekuren batean kokatzea? Horrela bada, non?

Iruñean, 1998ko otsailaren 12an

Foru Parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren

Errepideak zaintzeko zenbait lan esleitzeko irizpideei buruzko galdera

JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko otsailaren 17an egindako bilkuran, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak errepideak zaintzeko zenbait lan esleitzeko irizpideei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1998ko otsailaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Juan Cruz Alli Aranguren, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dakion:

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak ondoko Foru Aginduak eman zituen: 5122, 5123, 5124, 5125, 5126 eta 5127/1997, abenduaren 2koak, 1988ko otsailaren 4ko 15. NAO n argitaratuak, errepideak zaintzeko zenbait lan behin betiko esleitzen zituztenak. Horiei buruz hauxe jakin nahi da:

1.- Zein irizpide ezarri ditu Departamentuak Foru Agindu horietan aipatutako lehiaketetara aurkeztu diren enpresen balorazioa egiteko?

2.- Zein enpresak izan du aukera aipatutako esleipenak lortzeko?

3.- Zer balorazio eman zaio enpresa lizitatzailerako bakoitzari kontzeptu bakoitzagatik?

4.- Zer motibazio alegatzen du Departamentuak lanak bost kasuetan enpresa berari esleitzeko?

Iruñean, 1998ko otsailaren 12an

Foru Parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren

Osasun zentroetako haur/pediatra ratioari buruzko galdera

FRANCISCA CATALAN FABO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko otsailaren 17an egindako bilkuran, Francisca Catalán Fabo Foru Parlamentari andreak osasun zentroetako haur/pediatra ratioari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1998ko otsailaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Francisca Catalán Fabo, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

ren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroan azken urte hauetan egin den hiriplangintzak Iruñeko zenbait auzotako biztanleria haziarazi du, eta baita zenbait herritakoa ere.

Biztanleria, kasu horietan, familia gazteak dira nagusiki, eta horrek zonalde horietako ume kopuruaren handitzea ekarri du. Gerta daiteke zenbait oinarriko osasun barrutietan pediatria kontsultak gainezka egotea. Hori horrela bada, berriz pentsatu beharko da plantila horiek nola antolatu.

Hori guztia dela eta, hauxe jakin nahi da:

1.- Zein da haur/pediatra ratioa Nafarroako osasun etxeetan?

Marcillan, 1998ko otsailaren 11n

Foru Parlamentaria: Francisca Catalán Fabo

Administrazio publikoetako langileen eskubide pasiboen erregimena arautzeari buruzko galdera

FRANCISCA CATALAN FABO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko otsailaren 17an egindako bilkuran, Francisca Catalán Fabo Foru Parlamentari andreak administrazio publikoetako langileen eskubide pasiboen erregimena arautzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1998ko otsailaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Francisca Catalán Fabo, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, honako galdera hau egiten du, Biltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, idatziz erantzun dakion:

Funtzio publikoari buruzko legeriak administrazio publikoko langileriaren eskubide pasiboen erregimena erregulatu behar dela ezartzen du.

Ezaguna da zer nolako zama ekonomikoa den toki ogasunentzat langileriaren eskubide pasiboen finantzaketa, montepioen bidez egiten dena.

Toki montepioek dakartena da, udalek, urtero, beren aurrekontuen laurdena beren pasiboak ordaintzera zuzendu behar izaten dutela, eta honela, hein handi batean, beren ahalmen ekonomikoa hipotekatu egiten dute. Udalbatzek urtetan adierazi dute arazoaren larritasuna.

Toki Administrazio Kontseilariak, 1996ko urriaren 16ko agerraldian, bere departamentuaren jarduera-lerroen berri ematerakoan, aitortzen zuen gaia garrantzitsua zela eta positiboki baloratzen zuen Mutuality Nacional de Personal de la Administración Local (MUPAL) izeneko Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean sartu izatea; halaber borondate politiko argia adierazi zuen irtenbideen bilaketan sakontzeko, horrela, etorkizunean, toki ogasunek ez dezaten izan montepioek dakarten finantza-zama.

Parlamentari honek egin zuen idatzizko erantzuna eskatzen zuen galdera, toki montepioei eta hauek Gizarte Segurantzaz sartzeko aukerari buruzkoa (1997ko otsailaren 28an), eta uste du nahikoa denbora pasa dela gobernuak datuak izan ditzan arazoaren irtenbidean aurrera egiteko.

Hori guztia dela-eta, ondoko galdera hauek egiten dira:

1.- Zer jarduera egin ditu Nafarroako Gobernuak gai honi buruz?

2.- Zenbat alditan bildu da edo zer kontaktu izan ditu Gizarte Segurantzarekin, eta halaber Administrazio Publikoen Ministerioarekin?

3.- Zer egutegi du aurreikusia Nafarroako Gobernuak 1998rako?

4.- Zer ikerlan egin ditu Nafarroako Gobernuak?

Marcillan, 1998ko otsailaren 11n

Foru Parlamentaria: Francisca Catalán Fabo

Elkarkide eta Tasubinsa zentro okupazionaleri emaniko dirulaguntzei buruzko galdera

M^a ISABEL ARBONIÉS BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko otsailaren 17an egindako bilkuran, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak Elkarkide eta Tasubinsa zentro okupazionaleri emaniko dirulaguntzei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1998ko otsailaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

M^a Isabel Arboniés Bermejo, Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Taldeari atxikitutako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion.

Zentro okupazionaletan desoreka psikikoak dituzten pertsonak onartzeari buruzko galderari, Gizarte Ongizate, Kirol, eta Gazteri Kontseilariak emaniko erantzunean argi azaltzen da dirulaguntza jasotzen duten zentro okupazionalak eragozpenak jartzen dituztela desoreka psikikoak eta adimen-urrituak dituzten pertsonak sar daitezten.

Halaber, Nafarroako Gobernuak etorkizunerako dituen asmoak agertzen dira, ukitutako pertsonen eta beren familiartekoen bizitako diskriminazio nabarmen hori konpontzeko, gizarte-langileentzat ere ezaguna zena, hain zuzen, pertsona horiek kokatzeko saio guztietan parte hartu duten gizarte-langileentzat.

Tasubinsa (ANFAS) eta Elkarkide (ANASAPS) diru publikoak sostengatzen ditu 1990 eta 1991tik, hurrenez hurren.

Tasubinsako administrazio-kontseiluan Nafarroako Gobernuak ordezkari bat du, eta Elkarki-

den, Sarrera Batzordean, Ongizateko ordezkari bat egon da eta baita Osasuneko ordezkari bat ere, 1997ko bukaeran batzorde hori desegin zen arte.

Bestalde, buruko gaitza duten pertsonen etxez etxeko laguntza behar dutela nabaria da. Egun, familiak dira pertsona horien ardura osoa hartzen dutenak; familiartekoen zaintzen dituzte pertsona horiek beren etxeetan.

Hori guztia dela-eta, hauxe jakin nahi da:

1) Nafarroako Gobernuak emaniko dirulaguntzaren zenbatekoa, bai Elkarkide, bai Tasubinsako zentroi azken bost urte hauetan.

2) Urtero eskatzen al zitzaien zentroi memoria, altak eta bajak, onartuen eta baztertuen zerrenda, edo dirulaguntza publikoarekin kudeatzen zuten errealitateari buruzko informazioa?

3) Informatu al zuten Nafarroako Gobernuak Tasubinsa eta Elkarkiden zituen ordezkariak, desoreka psikikoak eta adimen-urrituak dituzten pertsonak sar zitezten jartzen ziren eragozpenei buruz?

4) Erantzunean aipatzen da familiek ez dituztela beren semeak Unitate Okupazionalerara bidali nahi. Zein datutan oinarriturik abiarazi zen bost unitateko plangintza?

5) Zer datu ditu Osasun Departamentuak buruko gaitza izan eta baliabideak jasotzeko (lan/okupazional motakoak) itxaron zerrendan dauden pertsonen buruz, eta etxez etxeko laguntza behar dutenei buruz, Adimen Osasun Zentro bakoitzean?

Iruñean, 1998ko otsailaren 16an

Foru Parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

Batxilergoari eta prestakuntza zikloei dagokien hezkuntza-eskaintzari buruzko galdera

M^a ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko otsailaren 17an egindako bilkuran, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak batxilergoari eta prestakuntza zikloei dagokien hezkuntza-eskaintzari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1998ko otsailaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

M^a Isabel Arboniés Bermejo, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeko Hezkuntzarako bozeramaileak, Biltzarreko Erregelamenduak xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Hilaren 11n, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Kontseilari eta Zuzendari Nagusiak agerraldia izan zuten Parlamentuko Hezkuntza Batzordearen aurrean, batxilergoen eta L.H. berriaren taxuketa azaltzeko.

Agerraldi horretan, ikastetxeak -zehazki, Lodosa- 98/99 ikasturterako euren hezkuntza-eskaintza planifikatzean izaten ari ziren arazoak eta Sakanako egoeraren berri eman zuten bozeramaile honek.

98/99 ikasturterako egoera Erribera Goitiko zonan nahasi samarra da. Bi ikastetxe daude bertan: Lodosa, plantilaren %90 egonkorra duen

erroturiko ikastetxe batekin (20 urte), behar adinako dotazioekin eta hobetze-fasean, eta San Adrian, ikastetxe sortu berria izango duena, eraikina oraindik egin gabe badago ere, eta plantilan Bigarren Hezkuntzako irakaslerik eduki gabe.

Joan den otsailaren 4ko bileran, Zuzendari Orokorra den Arellano jaunak honako honen berri eman zion Lodosako Koordinazio Pedagogikorako Batzordeari: San Adrianeko ikastetxe berriak hiru batxilergo eskainiko lituzke (Teknologikoa, Zientifikoa eta Humanistikoa) eta erdi-mailako hiru prestakuntza-ziklo (Nekazaritzako elikagaiak, Merkataritza eta Marketing). Lodosarako bi batxilergo aipatu zituen -Humanistikoa eta Zientziak- Teknologikoaren ibilbide "light" batekin.

Hori guztia dela-eta, hauxe jakin nahi da:

1.- 18 kilometroko distantzian, bost batxilergo eta hiru prestakuntza-ziklo eskainiko dira. Behar adina ikasle ba al dago hezkuntza-eskaintza hori justifikatzeko?

2.- Zer-nolako eskaria dago une honetan aipaturiko zonan eskainitako batxilergoetarako eta L.H-ko ziklo ertain berrietarako?

3.- San Adrianeko ikastetxea sortu berria izanik, hasierako asmo hori aldatu eta eskaintza arrazionalizatzerik ba al dago, dotazio gutxiago duen beste zenbait zonak baliabide gehiago izan dezan?

Iruñean, 1998ko otsailaren 16an

Foru Parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

Magnesitas enpresaren isurketa kutsatzailei buruzko galdera

IDATZIZKO GALDERA BIHURTZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko otsailaren 17an eginiko bilkuran, Bozeramaileen Batzarrak entzun ondoren, hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Begoña Errazti Esnal andreak Magnesitas enpresaren isurketa kutsatzailei buruzko galdera, idatziz erantzutekoa, aurkeztu zuen (97.12.29ko 88 zk.ko NPAO). Mahaiak, 1998ko otsailaren 10ean, ahozko galdera bihurtzea era-

baki zuen (98.2.16ko 13 zk.ko NPAO). Aipatu galdera idatziz erantzuteko galdera bidera dadin erabakitzen da.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1998ko otsailaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

G Sails:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrariak, administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzeke zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdia

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko otsailaren 17an egindako bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste.

Lehena. Administrariak, administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzeke zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdia onestea. Haien hautapena ondoren aipatzen diren oinarriekin bat eginen da.

Bigarrena. Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1998ko otsailaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrariak, administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzeke zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdia

1. Oinarria. 1. Administrariak, administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzeke zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako dei egiten da. Zerrenda horrek 1998-1999 urteetan behar diren aldi baterako kontratazioak egiteko balio izango du.

2. Parlamentuak zerrenda hori darabilenean, Biltzarraren eta hautatzen diren pertsonen arteko harremana aldi baterako administrazio kontratua bidez burutuko da, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko Langileen Estatutuko 4.2 artikuluan ezarritakoarekin bat. Kontratatuak Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 82.4 artikuluan aipatzen diren eginkizunak izanen dituzte.

3. Zerbitzuen prestazioaren erregimena Biltzarrereko administrariendako ezarritakoa izanen da.

2. Oinarria. Hauta-probetan parte hartu ahal izateko, ezinbestekoa izanen da betebeharrak hauek betetzea:

- a) Espainiako hiritartasuna izatea.
- b) Adinez nagusia izatea.
- c) Goi-mailako batxiler titulu, bigarren mailako lan-bide heziketa, edo baliokidearen jabe izatea.
- d) Bere eginkizunetan jarduteko gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.
- e) Funtzio publikoetan jarduteko ezgaitua edo gabetua ez izatea eta Administrazio Publiko baten zerbitzuetik berezia ez izatea.

3. Oinarria. 1. Oposizio-lehiaketa honetan parte hartzeke eskaerak Nafarroako Parlamentuko Lehendakari andreak igorri behar zaizkio eta, eskabide gisa, erantsitako eredu ofizialari jarraituz, Parlamentuko Erregistro Nagusian aurkeztuko dira, lanegunetan, goizeko bederatzietatik eguerdiko ordu biak arte, Deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost egun naturaleko epearen barranean.

2. Hautagaiek izen-deiturak, adina, helbidea jakinarazpen ondorioetarako eta telefonoa, hala bada, azalduko dituzte, baita bigarren Oinarrian eskatzen diren betebeharrak guztiak betetzen dituztela ere, beti ere eskabideak aurkezteke ezarritako epea bukatzen den egunean, eta, kontraturik gertatzekeotan, eskaturiko betebeharrak betetzen dituztela frogatzen dituzten agiriak aurkeztuko lituzketela.

3. Halaber, eskabidearekin batean, alegaturiko merezimenduen zerrenda eta horiek frogatzen dituzten agiriak aurkeztuko dira.

4. Oinarria. 1. Eskabideak aurkezteke epea bukatutik, Parlamentuko Lehendakariak onartu eta baztertuen behin-behineke zerrenda onetsiko du, Nafarroako Parlamentuko Irargarki Oholean

ikusgai jarriko dena. Zerrenda horretan onarturiko hautagaien izen-deiturak agertuko dira.

2. Interesatuek, bi laneguneko epearen barrenean, egoki deritzeten erreklamazioak aurkezten ahalko dituzte behin-behineko zerrendaren aurka.

3. Erreklamazioetarako epea bukatuta eta, hala bada, horiek ebatzita, Nafarroako Parlamentuko Lehendakariak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, Nafarroako Parlamentuko Iragarki Oholean ikusgai jarriko dena.

5. Oinarria. 1. Hona hemen hauta-probak zuzenduko dituen Epaimahaiko kideak:

Mahaiburua: Joaquín Salcedo Izu jauna, Nafarroako Parlamentuko Bigarren Lehendakariodea.

Ordezkoa: Fermín Ciaurriz Gómez jauna, Nafarroako Parlamentuko Lehen Idazkaria.

Mahaikidea: Esther Díaz Rivas andrea, Nafarroako Parlamentuko Legelaria.

Ordezkoa: Nekane Iriarte Amigot andrea, Nafarroako Parlamentuko Legelaria.

Mahaikidea: Francisco del Cerro Paúl jauna, Nafarroako Parlamentuko Zerbitzu Orokorren Burua.

Ordezkoa: Fernando Zulet Recalde jauna, Nafarroako Parlamentuko Kontuhartzailletza eta Ekonomi Gaietarako Zerbitzu Burua.

Mahaikidea: C mailako funtzionarioa, Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak izendatuko duena.

Ordezkoa: C mailako funtzionarioa, Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak izendatuko duena.

Idazkaria: Juana Díaz de Rada Turumbay andrea, Nafarroako Parlamentuko Administraria.

Ordezkoa: Carlos Bear Sanz jauna, Nafarroako Parlamentuko Administraria.

2. Epaimahaia 1998ko martxoan osatuko da. Epaimahaia ez du osatzerik izanen, ez eta jarduterik ere, bertan haren kideen gehiengo osoa ez badago.

3. Epaimahaia gehiengoz ebatziko ditu deialdiko oinarriak ulertu eta aplikatzerakoan sor litezkeen afera guztiak.

4. Mahaikideek abstenitzeko beharra dute eta Mahaiari jakinarazi beharko diote, Araubide Juridiko eta Guziendako Administrazio Prozedurari buruzko Legeko 28. artikuluan aurreikusiriko gora-beherak gertatzen direnean.

6. Oinarria. Lehiaketaldiaren hasiera, egiteko modua eta kalifikazioa.

1. Lehiaketaldiaren kalifikazioa honelaxe egingen da: izangai bakoitzari dagokion puntuazioa emanen zaio deialdi honen II. Eranskinean ezarritakoaren arabera. Lortu ahal izanen den kalifikaziorik altuena 15 puntu izanen da.

2. Merezimenduak dokumentu originalen bidez ziurtatuko dira, edo bestela administrazioak nahiz notarioak konpultsaturikoen bidez. Edozein modutan ere, dokumentu horiek baremoaren aplikazioak eskatutako informazio guztia izan beharko dute. Ziurtatu gabeko merezimenduak ez dira kontutan hartuko.

7. Oinarria. 1. Lehiaketaldia bukatu eta gero, egindako balorazioaren emaitza Epaimahaia Nafarroako Parlamentuko Iragarki Oholean jendaurrean paratuko du, hautagai bakoitzak lortu duen puntuazioaren berri emanaz. Halaber, eta gutxienez ere bi laneguneko aurrerapenarekin, oposizioaldiko probak zer egunetan egingo diren jakinaraziko da. Hautagaiek Nortasun Agiri Nazionala eraman beharko dute proba horretara.

2. Oposizioaldiaren hasiera, egiteko modua eta kalifikazioa.

1. Oposizioaldiak 1998ko apirilean hasi beharko du.

2. Izangaiei deialdi bakarrean deituko zaie ariketa bakoitzerako, behar bezala justifikatutako kasuetan salbu; hala ere Epaimahaia libreki baloratuko ditu kasu horiek. Izangaiek ariketetara Nortasun Agiri Nazionalarekin joan beharko dute.

3. Oposizioaldian izangaien ezagutzak baloratuko dira, eta ondoko ariketak egin beharko dira:

– Lehenengo ariketa:

a) Ortografia proba.

Epaimahaia prestaturiko proba ortografikoa izanen da. Diktaketa bat edota galdera-sorta bat izan daiteke.

b) Idatziz erantzun beharko dira Epaimahaia jarritako gai edo/eta galderak; horiek, beti ere, deialdi honen III. Eranskinean agertzen den programari buruzkoak izanen dira.

Ariketak ez du bi ordu baino gehiago iraungo.

– Bigarren ariketa:

a) Mekanografia proba.

Gutxienezko abiadura, 250 sakaldi minutuko. Ariketa honetan oposizilogileek beren idazmakinak erabili beharko dituzte, eta ezingo da erabili idaz-

makina elektriko edo elektronikorik. Ariketa IV. Eranskinen ezarritakoaren arabera eginen da.

b) Idatziz erantzun beharko dira jarritako galdera batzuk, Word testu-prozesadorearen ezagupideak baloratzeko.

– Hirugarren ariketa:

Idatziz izanen da eta Epaimahaiak jarritako zenbait ariketa praktiko egin beharko dira, gehienez ere bi ordutan. Ariketa horiek Nafarroako Parlamentuko Administrazioen Kidegoaren betebeharrekin zerikusia dutenak izanen dira.

Ariketa honetan haxe egin beharko da: dokumentuak idatzi, hain zuzen Parlamentuko kudeaketaren izapideekin zerikusia dutenak, eta III. Eranskineko gai-zerrendan oinarriturik egonen direnak.

4. Ariketak burutzeko plika itxien sistema erabiliko da, hirugarren ariketan izan ezik, ariketa praktikoa baita. Plikak jendaurrean irekiko dira, eta Parlamentuko Iragarri Oholean iragarriko da noiz irekiko diren, ireki baino hogeita lau ordu lehenago, gutxienez ere.

5. Epaimahaiak, ariketak egin ahala, ariketa horiek gainditu dituztenen zerrendak jendaurrean paratuko ditu, bakoitzak lortutako puntuazioarekin batera.

6. Oposizioaldiko ariketak oinarri honetan ezarritako guztiaren arabera baloratuko dira. Bai ariketa, bai proba bakoitza gainditzeko, gutxienez ere, lortu ahal diren puntuen erdia lortu beharko da.

7. Oposizioaldiko ariketen balorazioa honelaxe eginen da:

Lehenengo ariketa:

a) probaren balorazioa Otik 15 puntura.

b) probaren balorazioa Otik 25 puntura.

Bigarren ariketa:

a) probaren balorazioa Otik 15 puntura.

b) probaren balorazioa Otik 15 puntura.

Hirugarren ariketa:

Balorazioa Otik 30 puntura.

8. Oinarria. 1. Merezimenduak baloratu ondoren eta oposizioaldiko probei nota eman eta gero, Epaimahaiak gainditu dutenen zerrenda egingo du, puntuaziorik gehien dutenengandik hasi eta gutxien dutenenganaino ordenaturik.

2. Epaimahaiak jendaurrean iragarriko du gainditu dutenen zerrenda eta berau Nafarroako Parlamentuko Iragarri Oholean paratuko du.

3. Zerrenda egiterakoan puntuazioetan berdinketarik gertatuz gero, berauek oposizioaldian puntuaziorik gehien atera duen hautagaiaren alde ebatziko dira.

9. Oinarria. 1. Mahaiak, kontrataziorik egin behar badu, gainditu dutenen zerrendako ordenari jarraituz egingo du. Horretarako, kontrataziorako proposatzen den hautagai gaindituak aurkeztuko ditu Parlamentuko Erregistro Nagusian, kontratazioaren jakinarazpenaren ondorengo hamar egun naturalen barruan, ondorengo agiri hauek:

a) Jaiotze-aktaren egiaztagiria, edo Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia kautotua.

b) Administrazio Publiko baten zerbitzutik berezia izan ez dela eta funtzio publikoetan aritzeko ezgaiturik edo gabeturik ez dagoela dioen zinpeko aitortpena.

c) Eskaturiko tituluen kopia egiaztatua edo fotokopia (jatorrizkoarekin batera aurkeztu beharko dena, kautotua izan dadin) edo eginiko ikasketen ziurtagiri akademikoa edo eta berau eskuratzeko eskubideak ordaindu direlako egiaztagiriak.

d) Halaber, eginkizunak aurrera eramatea galarazten duen gaisotasunik edo akats fisikorik ez izatearen egiaztagiria ere aurkeztu beharko da, Mahaiak adierazten duen sendagileak edo Erakundeak luzatua.

2. Aurreko ataletan aipatzen diren agiriak ezin daitezkeela aurkeztu behar den bezalako arrazoiez justifikatzen bada, Zuzenbidean onartzen den edozein frogaren bidez egiaztatu ahalko da deialdian parte hartzeko eskatzen diren betebeharrak betetzen direla.

3. Ezarritako epearen barruan, eta ezinbesteko arrazoiak tartean ez daudelarik, agiriak aurkezten ez baditu, hautagaia ezin izango da kontratatua izan, hasierako eskaeran egin duen faltsutasunarengatik erantzukizuna deusetan galarazi gabe. Kasu honetan, kontratazio-proposamena deialdiko 8. Oinarrian aipatzen den zerrendan ondorengo puntuaziorik handiena atera duenaren alde egingo litzateke.

10. Oinarria. Indarrean dagoen arauteriarri jarriaki, administrazioarekiko errekurtsioa jarri ahalko da Nafarroako Autzitegi Nagusian, deialdiaren aurka eta baita oinarri hauen eta hautaketa prozedurari buruz Nafarroako Parlamentuko Mahaiak harturiko edozein erabakiren aurka,

horiek argitaratu edo horien jakinarazpena jaso eta bi hilabeteko epean.

Deialdi hau gauzatzeko egiten den beste edozein ekintzaren aurka errekurtsu arrunta jari ahalko da Nafarroako Parlamentuko Mahaian, horiek argitaratu edo horien jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean. Errekurtsu arruntaren ebazpenaren aurka, administrazioarekiko errekurtsu jarri ahalko da Nafarroako Auzitegi Nagusian.

I. ERANSKINA

_____ j/ak,
 _____ urte dituenak, _____ N.A.N. daukanak,
 helbidea jakinarazpen ondorioetarako _____(n),
 _____kalean, _____ zenbakian, _____
 pisuan, _____ posta kodea duenak eta _____
 telefonoa duenak,

ADIERAZTEN DU:

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrariak, administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzeko zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdiaren berri jakinik (.....ko ... zenbakia duen Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen) eta hartan parte hartu nahian, erantsirik agirian, Hirugarren Oinarrian ezarritakoekin bat, alegatzen diren merezimenduak biltzen dituela, behar bezala antolaturik, baita horiek frogatzen dituzten agiriak ere.

Deialdiko bigarren Oinarrian eskatzen diren betebeharrak guztiak biltzen dituela, eskabideak aurkezteko epea bukatzen denean.

Izendatua bada, konpromisoa hartzen duela deialdiko bederatzigarren oinarrian aipatzen diren agiriak aurkezteko, kontratua izenpetzean.

Hori horrela, zuri

ESKATZEN DIZU, idazki hau aurkeztutzat emanda, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrariak, administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzeko zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketan onar dezazula.

Iruñean, 1998ko _____aren ____ (e)an

(Izenpea)

II. ERANSKINA

MEREZIMENDUEN BAREMOA

Deialdiko postuek dituztenen antzeko eginkizunetan aritu izatea edo horrelakoetan zerbitzuak eman izatea, bai administrazio publikoan, bai enpresa pribatuan: Epaimahaiak baloratuko ditu, eta gehienez ere hamabost punturekin; Epaimahaiak kontutan hartuko ditu lanpostuen kategoria

maila, haietan sartzeko zailtasuna, antzintasuna eta destinoa.

III. ERANSKINA

1. GAIA.- Espainiako 1978ko Konstituzioaren Lehen Xedapen Gehigarria. Nafarroako Foru Errentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko testua: izaera eta esanahia. Egitura eta sistematika. Aurrekariak. Egitea. Edukia.

2. GAIA.- Nafarroako Foru Erakundeak. Nafarroako Parlamentua edo Gorteak. Historia, osaketa eta eginkizunak. Autonomia instituzionala: bere aurrekontuak, erregelamendua eta barneko gobernua.

3. GAIA.- Foru Diputazioa edo Nafarroako Gobernua. Eginkizunak. Osaketa. Nafarroako Gobernuko Lehendakaria. Bere hautaketa. Bere erantzukizun politikoa Nafarroako Parlamentuaren aurrean.

4. GAIA.- Nafarroako Foru Komunitateko Gobernu eta Administrazioaren antolakuntza eta egitura.

5. GAIA.- Foru Parlamentariak; eskubide eta betebeharrak. Parlamentari Taldeak.

6. GAIA.- Parlamentuaren antolakuntza: Lehendakaria, Mahaia eta Bozeramaileen Batzarra. Batzordeak, Osoko Bilkura eta Batzorde Iraunkorra.

7. GAIA.- Parlamentuaren funtzionamendua: bilkurak, gai zerrenda, bozketak, epeen zenbatzea eta agiriaren aurkezpena.

8. GAIA.- Ohiko legegintza-jardunbidea. Legegintza-jardunbide bereziak.

9. GAIA.- Jabeldurak eta galderak. Mozioak.

10. GAIA.- Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua. Zerbitzuen egitura. Legelari Nagusia. Langileriaren erregulazioa.

11. GAIA.- Nafarroako Kontuen Ganbara: analisi laburra bere izaera, eginkizunak, antolakuntza eta funtzionamenduari buruz.

IV. ERANSKINA

Proba mekanografikoa

a) Azalpena.

Izangaiek makinaz idazteko duten egiazko abiadura neurtzea da proba honen xedea; horretarako, sakaldi kopuru osoari kenduko zaizkio atzematen diren akatsak eta omisioak.

Izangaiek beren idazmakina mekanikoa eramanen dute eta debekatua dago idazmakina elektronikoa eramatea, baita pilaz ibiltzen direnetakoak badira ere.

b) Probako testua.

Epaimahaiak emanen duen testua kopia beharko da. Testu hau literarioa izanen da, eta zenbakiak eduki ahal baditu ere, zailtasunak baztertzeko irizpidea erabiliz burutuko da (zutabeak, tabulazioak, subindizeak, formulak, etab.), partehartzaile guztiei zailtasun gradu berdina segurtatzeko, idazmakinen ezaugarri teknikoetatik at, baita ariketen puntuaketa objektiboa errazteko ere.

Kopiatzeko hamar minutu emanen dira. Aitzinetik, gutxienez bost minutu utziko dira aukeran, nahi duenak digitazio ariketak egin ditzan.

c) Puntuazioa.

Behar bezala eginiko sakaldian soilik izanen dira konputagarriak, hau da, Epaimahaiak emandako originalarekin zehatz-mehatz bat datozenak.

Baliozko sakaldiak:

– Epaimahaiak emanen duen jatorrizkoarekin bat datorren karaktere, tarte edo zeinu bakoitzeko, sakaldi bat.

Konputagarriak ez diren sakaldiak:

– Jatorrizkoarekin zehatz-mehatz bat ez datozen sakaldiak ez dira kontuan hartuko: toki okerrean paratzen diren letrak, tildeak edo zeinuak, errepikatuak zein sobran daudenak.

– Testua kopiatzeko unean ezin izanen dira akatsak edo omisioak zuzendu eta, ondorioz, aurretik zeudenen gainean bertze batzuk paratzen badira, ez dira baliozkoak izanen.

– Hitz berean hiru edo sakaldi gehiagoko digitazio omisioak edo akatsak, kontaketa ondorioetarako hitz horri zuzen idatzita dagozkion sakaldi guztien ezabapena ekarriko du.

– Izangaiek testuan lerro bat edo gehiago idatzi gabe uzten baditu, idatzi gabeko lerro bakoitzeko hamar sakaldi kenduko zaizkio.

Gutxienerako abiadura proba hau gainditzeko, baliozko 250 sakaldi minutuko izanen da, eta kanporatuak izanen dira abiadura hori erdiesten ez dutenak.

Gutxienerako maila hori gainditzen duten ariketak, baliozko sakaldi kopuruaren arabera, gehienetik gutxienera ordenatuko dira eta hurrengo baremoaren arabera kalifikatuko dira:

–Baliozko 250 s.m.,	5 puntu.
–Baliozko 251tik 260rainoko s.m.:	5,5 puntu.
–Baliozko 261tik 270rainoko s.m.:	6 puntu.
–Baliozko 271tik 280rainoko s.m.:	6,5 puntu.
–Baliozko 281tik 290rainoko s.m.:	7 puntu.
–Baliozko 291tik 300rainoko s.m.:	7,5 puntu.
–Baliozko 301tik 310rainoko s.m.:	8 puntu.
–Baliozko 311tik 320rainoko s.m.:	8,5 puntu.
–Baliozko 321tik 330rainoko s.m.:	9 puntu.
–Baliozko 331tik 340rainoko s.m.:	9,5 puntu.
–Baliozko 341 s.m. edo gehiago:	10 puntu.

d) Proba kronometratzea.

Lehenik eta behin, epaimahaiak orri zuri bat emanen du, izangaiek, aukeran, digitazio ariketak egiteko.

Digitazio denbora bukatuak, alde aurreko ariketetan erabili diren orriak bildu eta baliorik gabe utzi eta ariketari berari hasiera eman baino lehenago, proba hasi eta bukatzeko seinaleak zeintzuk izanen diren adieraziko zaie oposizioz gileei (bukatzekoak bi denbora izanen ditu, aurreabisua eta behin betiko gelditzea).

Gelditzeko azken aginduari kasu egiten ez diona bazterturik geldituko da.

Kopiatu beharreko testua eta ariketa egiteko orriak banatuko zaizkie partehartzaileei. Testua lerro bateko tartean kopiatu beharko da eta jatorrizkoari atxikiko zaio zuzen-zuzen.

Espreki ohartaraziko zaie partehartzaileei, behin ariketa hasirik, ez dela inolaz ere geldituko, eta idazmakinen funtzionamendu zuzena partehartzaileen beren erantzukizuna dela. Beraz, gerta daitezkeen matxurak ez dira inongo ondorioetarako kontutan hartuko.

Ariketa egiten ari den bitartean gerta litekeen edozein gorabehera ebazteko, partehartzaileak ariketa hori zuzentzeko ardura dutenei bakarrik zuzenduko zaizkie.

Epaimahaiak, antolamendu kontuak direla eta, talde desberdinak egin ditzake. Hala egiten badu, talde bakoitzean ariketa hasi baino lehenago, eta beharrezkoa bada, proba horretako testua zein izanen den jakiteko zozketa egingen da.

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko euskara itzultzaile-technikariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzeke zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdia

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko otsailaren 17an egindako bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste.

Lehena. Euskara itzultzaile-technikariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzeke zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdia onestea. Haien hautapena ondoren aipatzen diren oinarriekin bat eginen da.

Bigarrena. Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1998ko otsailaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko euskara itzultzaile-technikariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzeke zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdia

1. Oinarria. 1. Euskara itzultzaile-technikariak, administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzeke zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako dei egiten da. Zerrenda horrek 1998-1999 urteetan behar diren aldi baterako kontratazioak egiteko balioko du. Aipatutako zerrenda horrek osatu eginen du Nafarroako Parlamentuko Mahaiak onetsi zuen (1997ko martxoaren 10ean) eta NPAOn (1997ko martxoaren 14ko 18. zenbakian) argitaratu zen deialdiari jarraikiz osatu zen zerrenda. Kontratazioak egiterakoan, lehentasuna emanen zaie iaz osatutako zerrendakoei (hain zuzen, epaimahai kalifikatzaileak 1997ko maiatzaren 8an jendaurrean paratu eta Biltzarreko Mahaiak 1997ko maiatzaren 12an ezagutu zuen zerrendakoei) deialdi honen ondorioz osatutako zerrendakoekiko.

2. Parlamentuak zerrenda hori darabilenean, Biltzarren eta hautatzen diren pertsonen arteko harremana aldi baterako administrazio kontratuaren bidez burutuko da, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko Langileen Estatutuko 4.2 artikuluan ezarritakoarekin bat. Kontratatuek Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 8.2 artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Administrazioaren Antomenduari buruzko Erregelamenduko 20.2 artikuluan aipatzen diren eginkizunak izanen dituzte.

3. Zerbitzuen prestazioaren erregimena Biltzarreko euskara itzultzaile-technikariendako, ezarritakoa izanen da.

2. Oinarria. Hauta-probetan parte hartu ahal izateko, ezinbestekoa izanen da betebeharrak hauek betetzea:

a) Espainiako hiritartasuna izatea.

b) Adinez nagusia izatea.

c) Lizentziatu, injineru edo arkitekto unibertsitate-tituluaren jabe izatea.

d) Ofizialki onetsitako euskara-titulu ofiziala izatea (EGA, Hizkuntza Eskola Ofizialekoa edo Euskaltzaindikoa).

e) Bere eginkizunetan jarduteko gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

f) Funtzio publikoetan jarduteko ezgaitua edo gabetua ez izatea eta Administrazio Publiko baten zerbitzuetik bereizia ez izatea.

3. Oinarria. 1. Oposizio-lehiaketa honetan parte hartzeko eskaerak Nafarroako Parlamentuko Lehendakari andeari igorri behar zaizkio eta, eskabide gisa, erantsitako eredu ofizialari jarraiki, Parlamentuko Erregistro Nagusian aurkeztuko dira, lanegunetan, goizeko bederatzietatik eguerdiko ordu biak arte, Deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost egun naturaleko epearen barrenean.

2. Hautagaiek izen-deiturak, adina, helbidea jakinarazpen ondorioetarako eta telefonoa, hala bada, azalduko dituzte, baita bigarren Oinarrian eskatzen diren betebeharrak guztiak betetzen dituztela ere, beti ere eskabideak aurkezteko ezarritako epea bukatzen den egunean, eta, kontratatutik gertatzekotan, eskaturiko betebeharrak dituztela frogatzen dituzten agiriak aurkeztuko lituzketela.

3. Halaber, eskabidearekin batean, alegaturiko merezimenduen zerrenda eta horiek frogatzen dituzten agiriak aurkeztuko dira, Deialdi honetako 6. Oinarrian ezarritakoarekin bat sailkatuak.

4. Oinarria. 1. Eskabideak aurkezteko epea bukatutik, Parlamentuko Lehendakariak onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, Nafarroako Parlamentuko Iragarri Oholean ikusgai jarriko dena. Zerrenda horretan onartutako hautagaien izen-deiturak agertuko dira.

2. Interesatuek, bi laneguneko epearen barrenean, egoki deritzeten erreklamazioak aurkezten ahalko dituzte behin-behineko zerrendaren aurka.

3. Erreklamazioetarako epea bukatuta eta, hala bada, horiek ebatzita, Nafarroako Parlamentuko Lehendakariak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, Nafarroako Parlamentuko Iragarki Oholean ikusgai jarriko dena.

5. Oinarria. 1. Hona hemen hauta-probak zuzenduko dituen Epaimahaiko kideak:

Mahaiburua: Amelia Salanueva Murguialday andrea, Nafarroako Parlamentuko Bigarren Idazkaria.

Ordezkoa: M^a Rosario Villanueva Iturralde andrea, Nafarroako Parlamentuko Lehen Lehendakariordea.

Mahaikidea: Jose María Satrustegi Zubeldia jauna, Euskaltzaindiko kidea.

Ordezkoa: Andrés Iñigo Ariztegi jauna, Euskaltzaindiko kidea.

Mahaikidea: Xabier Aristeguieta Oquiñena jauna, Nafarroako Parlamentuko itzultzailea.

Ordezkoa: Ander Irizar Apaolaza jauna, Nafarroako Parlamentuko itzultzailea.

Mahaikidea: Mikel Taberna Irazoki jauna, Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzako Itzulpen Zerbitzuko itzultzailea.

Ordezkoa: Xabier Olarra Lizaso jauna, Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzako Itzulpen Zerbitzuko itzultzailea.

Mahaikidea: Mikel Iriarte Cilveti jauna, Nafarroako Parlamentuko itzultzailea, Epaimahaiko Idazkari lanetan arituko dena.

Ordezkoa: José María Sestorain Zestau jauna, Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzako Itzulpen Zerbitzuko itzultzailea.

2. Epaimahaia 1998ko martxoan osatuko da. Epaimahaia ez du osatzerik izanen, ez eta jarduterik ere, bertan haren kideen gehiengo osoa ez badago.

3. Epaimahaia gehiengoz ebatziko ditu deialdiko oinarriak ulertu eta aplikatzerakoan sor litezkeen afera guztiak.

4. Mahaikideek abstenitzeko beharra dute eta Mahaiari jakinarazi beharko diote, Araubide Juridiko eta Guziendako Administrazio Prozedurari buruzko Legeko 28. artikuluan aurreikusiriko gora-beherak gertatzen direnean.

6. Oinarria. Lehiaketaldian, alegaturiko merezimenduak honela sailkatu eta puntuatuko dira:

A) Ikasketa merezimenduak.

Euskal Filologiako Lizentziatura: 2 puntu.

Lizentziatura gradua: 0,50 puntu.

Doktore gradua: puntu 1.

Doktoretzan izandako sari berezia edo ohorezkoa: 0,50 puntu.

Doktoretzako ikastaro monografikoetan izandako ohorezko matrikula edo bikain bakoitzeko: 0,10 puntu.

Bestelako lizentziaturak: puntu bana.

B) Parlamentu Erakundeetan edo Administrazio Publikoan emaniko zerbitzuak.

1. Parlamentu Erakundeetan eta Administrazioan, Euskara Itzultzaile lanpostuan, eman edo aitorturiko zerbitzuak baloratuko dira, lanpostu horretarako ofizialki onetsitako euskara-titulua (EGA, Hizkuntza Eskola Ofizialekoa edo Euskaltzaindiko) eskatu bada. Urteko puntu 1 emanen da.

2. Parlamentu Erakundeetan eta Administrazio Publikoetan eman edo aitorturiko zerbitzuak, lizentziatu, injineru edo arkitekto titulua eskatzen duen lanpostuan. Ez dira kontutan hartuko batera emaniko zerbitzuak. Urteko 0,5 puntu emanen da.

C) Lanbide curriculumak:

Atal honetan hautagaien lanbide historiala baloratuko da: lanpostuak eta buruturiko jarduerak.

Epaimahaia lanbide historiala neurtuko du eta bereziki kontutan hartuko ditu beteriko lanpostuen kategoria eta garrantzia, haietan sartzeko zailtasuna eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak eta haren Langileen Estatutuak euskara itzultzaileak diren teknikariei esleitzen dizkieten eginkizun berak edo antzekoak benetan betetzea.

Hautagaiak bere lanbide curriculumak aurkeztu beharko dute, oposizio-lehiaketan onartua izateko eskabidearekin batera.

D) Bestelako merezimenduak:

Atal honetan argitarapenak, emaniko ponentzia eta hitzaldiak, hizkuntzak, hobekuntza ikastaroak, eta beste edozein merezimendu baloratuko dira, hautagaiak azaldu eta frogatu badituzte eta Epaimahaia kalifikatzea egoki baderitze.

Lehiaketaldiko kalifikazioa hautagai bakoitzari 0tik 20 puntu bitarteko puntuazioa emanez egingen

da, epigrafe bakoitzerako honako puntuazio baremo honen arabera:

- A) 5 puntu, gehienez ere.
- B) 5 puntu, gehienez ere.
- C) 5 puntu, gehienez ere.
- D) 5 puntu, gehienez ere.

7. Oinarria. 1. Lehiaketaldia bukatu eta gero, egindako balorazioaren emaitza Epaimahaiak Nafarroako Parlamentuko Irigarri Oholean jendaurrean paratuko du, hautagai bakoitzak lortu duen puntuazioaren berri emanez. Halaber, eta gutxienez ere hiru laneguneko aurrerapenarekin, oposizioaldiko probak zer egunetan egingo diren jakinaraziko da. Hautagaiek Nortasun Agiri Nazionala eraman beharko dute proba horietara.

2. Oposizioaldiko probak ariketa hauek osatuko dituzte:

1. Lehenengo ariketa bi proba praktikok osatuko dute. Batean, Epaimahaiak emanen dituen bi testu, bata literarioa eta bestea juridiko-politiko, itzuli beharko dira euskaratik gaztelaniara. Bestean, Epaimahaiak emanen dituen bi testu, bata literarioa eta bestea juridiko-politiko, itzuli beharko dira gaztelaniatik euskarara.

Ariketa praktikoa hori egiteko hautagaiek gehienez ere hiru ordu izango dituzte, eta hiztegia erabiltzen ahalko dute.

2. Bigarren ariketa proba praktikoa izango da. Parlamentuan euskaraz egindako hizketaldi baten aldi bereko itzulpena izango da, gaztelaniara.

3. Oposizioaldia honela kalifikatuko da:

1. Lehen ariketa praktikoa: 25 puntu, gehienez ere (12,5 puntu proba bakoitzeko).

2. Bigarren ariketa praktikoa: 25 puntu.

Oposizioaldiko ariketetako bakoitza kanporagarria izango da, eta ariketa bakoitzean gutxienez ere hamar puntu lortzen ez dituzten hautagaiak baztertuta geldituko dira.

8. Oinarria. 1. Ariketak burutzeko plika itxien sistema erabiliko da. Plikak jendaurrean irekiko dira, eta Parlamentuko Irigarri Oholean iragarriko da noiz irekiko diren, ireki baino hogeita lau ordu lehenago, gutxienez ere.

2. Epaimahaiak Nafarroako Parlamentuko Irigarri Oholean iragarriko ditu ariketen emaitzak.

9. Oinarria. 1. Merezimenduak baloratu ondoren eta oposizioaldiko probei nota eman eta gero, Epaimahaiak gainditu dutenen zerrenda egingo

du, puntuaziorik gehien dutenengandik hasi eta gutxien dutenenganaino ordenaturik.

2. Epaimahaiak jendaurrean iragarriko du gainditu dutenen zerrenda, berau Nafarroako Parlamentuko Irigarri Oholean paratuz.

3. Zerrenda egiterakoan puntuazioetan berdinketarik gertatuz gero, berauek oposizioaldian puntuaziorik gehien atera duen hautagaiaren alde ebatziko dira.

10. Oinarria. 1. Mahaiak, kontrataziorik egin behar badu, gainditu dutenen zerrendako ordenari jarraikiz egingo du. Horretarako, kontrataziorako proposatzen den hautagai gaindituak aurkeztuko ditu Parlamentuko Erregistro Nagusian, kontratazioaren jakinarazpenaren ondorengo hamar egun naturalen barruan, ondorengo agiri hauek:

a) Jaiotze-aktaren egiaztagiria, edo Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia konpultsatua.

b) Administrazio Publiko baten zerbitzutik berezia izan ez dela eta funtzio publikoetan aritzeko ezgaiturik edo gabeturik ez dagoela dioen zinpeko aitortpena.

c) Eskaturiko tituluen kopia egiaztatua edo fotokopia (jatorrizkoarekin batera aurkeztu beharko dena, kautotua izan dadin) edo eginiko ikasketen ziurtagiri akademikoa edo eta berau eskuratzeko eskubideak ordaindu direlako egiaztagiriak.

d) Halaber, eginkizunak aurrera eramatea galarazten duten gaisotasunik edo akats fisikorik ez izatearen egiaztagiria ere aurkeztu beharko da, Mahaiak adierazten duen sendagileak edo Erakundeak luzatua.

2. Aurreko ataletan aipatzen diren agiriak ezin daitezkeela aurkeztu behar den bezalako arrazoiak justifikatzen bada, Zuzenbidean onartzen den edozein frogaren bidez egiaztatu ahalko da deialdian parte hartzeko eskatzen diren betebeharrak betetzen direla.

3. Ezarritako epearen barruan, eta ezinbesteko arrazoiak tartean ez daudela, agiriak aurkezten ez baditu, hautagaia ezin izango da kontratatua izan, hasierako eskaeran egin duen faltsutasunarengatik erantzukizuna deusetan galarazi gabe. Kasu honetan, kontratazio-proposamena deialdiko 9. Oinarrian aipatzen den zerrendan ondorengo puntuaziorik handiena atera duenaren alde egingo litzateke.

11. Oinarria. Deialdiaren, oinarri hauen eta bere egintzen aurka administrazioarekiko errekurtsioa jarri ahalko da Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko dagokion Salan bi hilabeteko epean, Bilzarreko Mahaiari jakinarazi eta gero.

I. ERANSKINA

_____ j/ak,
_____ urte dituenak, _____ N.A.N. daukanak,
helbidea jakinarazpen ondorioetarako _____(n),
_____ kolean, ___ zenbakian, _____
pisan, _____ posta kodea duenak eta _____
telefonoa duenak,

ADIERAZTEN DU:

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko euskara itzultzaile-teknikariak, administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzeke zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdiaren berri jakinik (.....ko ... zenbakia duen Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua) eta hartan parte hartu nahian, erantsiriko agirian, Hirugarren Oinarrian ezarritakoarekin bat, alegatzen diren merezimenduak biltzen dituela, behar bezala antolaturik,

baita horiek frogatzen dituzten agiriak eta, haiekin batean, doakion lanbide curriculumare ere.

Deialdiko bigarren Oinarrian eskatzen diren betebeharrak guztiak biltzen dituela, eskabideak aurkezteko epea bukatzen denean.

Izendatua bada, konpromisoa hartzen duela deialdiko hamargarren Oinarrian aipatzen diren agiriak aurkezteko, kontratua izenpetzean.

Hori horrela, zuri

ESKATZEN DIZU, idazki hau aurkeztutzat emanda, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko euskara itzultzaile-teknikariak, administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzeke zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketan onar dezazula.

Iruñean, 1998ko _____aren ____ (e)an

(Izenpea)

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptoreak, administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzeke zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdia

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko otsailaren 17an egindako bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste.

Lehena. Transkriptoreak, administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzeke zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdia onestea. Haien hautapena ondoren aipatzen diren oinarriekin bat eginen da.

Bigarrena. Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñea, 1998ko otsailaren 18a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptoreak, administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzeke zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdia

1. Oinarria. 1. Transkriptoreak, administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzeke zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako dei egiten da. Zerrenda horrek 1998-1999 urteetan behar diren aldi baterako kontratazioak egiteko balioko du.

2. Parlamentuak zerrenda hori darabilenean, Biltzarraren eta hautatzen diren pertsonen arteko harremana aldi baterako administrazio kontratuen bidez burutuko da, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko Langileen Estatutuko 4.2 artikuluan ezarrikoarekin bat. Kontratatuak Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 8.4 artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Administrazioaren Antomenduari buruzko Erregelamenduko 20.3 artikuluan aipatzen diren eginkizunak izanen dituzte.

3. Zerbitzuen prestazioaren erregimena Biltzarrereko transkriptoreendako ezarrikoia izanen da.

2. Oinarria. Hauta-probetan parte hartu ahal izateko, ezinbestekoa izanen da betebeharrak hauek betetzea:

a) Espainiako hiritartasuna izatea.

b) Adinez nagusia izatea.

c) Goi-mailako batxiler titulu, bigarren mailako lan-bide heziketa, edo baliokidearen jabe izatea.

d) Bere eginkizunetan jarduteko gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

e) Funtzio publikoetan jarduteko ezgaitua edo gabetua ez izatea eta Administrazio Publiko baten zerbitzuetik berezia ez izatea.

3. Oinarria. 1. Oposizio-lehiaketa honetan parte hartzeko eskaerak Nafarroako Parlamentuko Lehendakari andreaki igorri behar zaizkio eta, eskabide gisa, erantsitako eredu ofizialari jarraiki, Parlamentuko Erregistro Nagusian aurkeztuko dira, lanegunetan, goizeko bederatzietatik eguerdiko ordu biak arte, Deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost egun naturaleko epearen barnean.

2. Hautagaiek izen-deiturak, adina, helbidea jakinarazpen ondorioetarako, eta telefonoa, hala bada, azalduko dituzte, baita bigarren Oinarrian eskatzen diren betebeharrak guztiak betetzen dituztela ere, beti ere eskabideak aurkezteko ezarriko epea bukatzen den egunean, eta, kontraturik gertatzekotan, eskaturiko betebeharrak dituztela frogatzen dituzten agiriak aurkeztuko lituzketela.

3. Halaber, eskabidearekin batean, alegaturiko merezimenduen zerrenda eta horiek frogatzen dituzten agiriak aurkeztuko dira.

4. Oinarria. 1. Eskabideak aurkezteko epea bukatutik, Parlamentuko Lehendakariak onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, Nafarroako Parlamentuko Iragarri Oholean ikusgai jarriko dena. Zerrenda horretan onaturiko hautagaien izen-deiturak agertuko dira.

2. Interesatuak, bi laneguneko epearen barnean, egoki deritzeten erreklamazioak aurkezten ahalko dituzte behin-behineko zerrendaren aurka.

3. Erreklamazioetarako epea bukatuta eta, hala bada, horiek ebazita, Nafarroako Parlamentuko Lehendakariak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, Nafarroako Parlamentuko Iragarri Oholean ikusgai jarriko dena.

5. Oinarria. 1. Hona hemen hauta-probak zuzenduko dituen Epaimahaiko kideak:

Mahaiburua: M^a Rosario Villanueva Iturralde andrea, Nafarroako Parlamentuko Lehen Lehendakariordea.

Ordezkoa: Joaquín Salcedo Izu jauna, Nafarroako Parlamentuko Bigarren Lehendakariordea.

Mahaikidea: Carlos Javier Gil Martínez jauna, Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitziburua.

Ordezkoa: Esther Díaz Rivas andrea, Nafarroako Parlamentuko Legelaria.

Mahaikidea: Iñaki de Santiago Segovia jauna, Nafarroako Parlamentuko Transkriptorea.

Ordezkoa: Francisca Palma Romero andrea, Nafarroako Parlamentuko Transkriptorea.

Mahaikidea: Carlota Aranaz Martí andrea, Nafarroako Parlamentuko Transkriptorea.

Ordezkoa: Susana Sáenz de Navarrete, Nafarroako Parlamentuko Transkriptorea.

Mahaikidea: Juana Díaz de Rada Turumbay, Nafarroako Parlamentuko Administraria.

Ordezkoa: Ana Huarte Campión, Nafarroako Parlamentuko Transkriptorea.

2. Epaimahaia 1998ko martxoan osatuko da. Epaimahaiak ez du osatzerik izanen, ez eta jarduterik ere, bertan haren kideen gehiengo osoa ez badago.

3. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiko oinarriak ulertu eta aplikatzerakoan sor litezkeen afera guztiak.

4. Mahaikideek abstenitzeko beharra dute eta Mahaiari jakinarazi beharko diote, Araubide Juridiko eta Guziendako Administrazio Prozedurari buruzko Legeko 28. artikuluan aurreikusiriko gora-beherak gertatzen direnean.

6. Oinarria. Lehiaketaldiaren hasiera, egiteko modua eta kalifikazioa.

1- Lehiaketaldiaren kalifikazioa honelaxe egingen da: izangai bakoitzari dagokion puntuazioa emanen zaio deialdi honen II. Eranskinean ezarritakoaren arabera. Lortu ahal izanen den kalifikaziorik altuena 15 puntu izanen da.

2- Merezimenduak dokumentu originalen bidez ziurtatuko dira, edo bestela fedemaile publiko batek konpultsaturikoen bidez. Edozein modutan ere, dokumentu horiek baremoaren aplikazioak eskatutako informazio guztia izan beharko dute. Ziurtatu gabeko merezimenduak ez dira kontutan hartuko.

7. Oinarria. 1. Lehiaketaldia bukatu eta gero, egindako balorazioaren emaitza Epaimahaiak Nafarroako Parlamentuko Iragarri Oholean jendaurrean paratuko du, hautagai bakoitzak lortu duen puntuazioaren berri emanez. Halaber, eta gutxienez ere bi laneguneko aurrerapenarekin, oposizioaldiko probak zer egunetan egingo diren

jakinaraziko da. Hautagaiak Nortasun Agiri Nazionala eraman beharko dute proba horretara.

2. Oposizioaldiaren hasiera, egiteko modua eta kalifikazioa.

1. Oposizioaldiak 1998ko apirilean hasi beharko du.

2. Izangaiei deialdi bakarrean deituko zaie ariketa bakoitzerako, behar bezala justifikatutako kasuetan salbu; hala ere Epaimahaiak libreki baloratuko ditu kasu horiek. Izangaiek ariketetara Nortasun Agiri Nazionalarekin joan beharko dute.

3. Oposizioaldian izangaien ezagutzak baloratuko dira, eta ondoko ariketak egin beharko dira:

–Lehenengo ariketa:

a) Mekanografia proba. Gutxienezko abiadura, 250 sakaldi minutuko. Ariketa honetan oposiziogileek beren idazmakinak erabili beharko dituzte, eta ezin izango da erabili idazmakina elektriko edo elektronikorik. Ariketa IV. Eranskinean ezarritakoaren arabera egingen da.

b) Ortografia. Epaimahaiak prestaturiko proba ortografikoa izanen da. Diktaketa bat edota galdera-sorta bat izan daiteke.

–Bigarren ariketa:

Idatziz erantzun beharko dira Epaimahaiak jarritako gai edo/eta galderak; horiek, beti ere, deialdi honen III. Eranskinean agertzen den programari buruzkoak izanen dira.

Ariketak ez du bi ordu baino gehiago iraungo.

–Hirugarren ariketa:

Idatziz izanen da eta Epaimahaiak jarritako zenbait ariketa praktikoa egin beharko dira, gehienez ere bi ordutan. Ariketa horiek Nafarroako Parlamentuko Transkriptoreen Kidegoaren betebeharrarekin zerikusia dutenak izanen dira; hain zuzen ere, Parlamentuko Aldizkari Ofizialeko orrialdeen edizioa, eta Parlamentuko mintzaldi bat transkribatu eta Bilkura Egunkarian editatu. Edizioa Quark.X.Press programarekin egingen da, 3.1 bertsioarekin hain zuzen.

4. Ariketak burutzeko plika itxien sistema erabiliko da. Plikak jendaurrean irekiko dira, eta Parlamentuko Iragarri Oholean iragarriko da noiz irekiko diren, ireki baino hogeita lau ordu lehenago, gutxienez ere.

5. Epaimahaiak, ariketak egin ahala, ariketa horiek gainditu dituztenen zerrendak jendaurrean paratuko ditu, bakoitzak lortutako puntuazioarekin batera.

6. Oposizioaldiko ariketak oinarri honetan ezarritako guztiaren arabera baloratuko dira. Bai ariketa, bai proba bakoitza gainditzeko, gutxienez ere, lortu ahal diren puntuen erdia lortu beharko da.

7. Oposizioaldiko ariketen balorazioa, honelaxe egingen da:

Lehenengo ariketa:

Lehenengo probaren balorazioa.. Otik 15 puntura.

Bigarren probaren balorazioa Otik 15 puntura.

Bigarren ariketa:

Balorazioa..... Otik 30 puntura.

Hirugarren ariketa:

Balorazioa..... Otik 40 puntura.

8. Oinarria. 1. Merezimenduak baloratu ondoren eta oposizioaldiko probei nota eman eta gero, Epaimahaiak gainditu dutenen zerrenda egingo du, puntuaziorik gehien dutenengandik hasi eta gutxien dutenenganaino ordenaturik.

2. Epaimahaiak jendarean iragarriko du gainditu dutenen zerrenda eta berau Nafarroako Parlamentuko Iragarri Oholean paratuko du.

3. Zerrenda egiterakoan puntuazioetan berdinketarik gertatuz gero, oposizioaldian puntuaziorik gehien atera duen hautagaiaren alde ebatziko da.

9. Oinarria. 1. Mahaiak, kontrataziorik egin behar badu, gainditu dutenen zerrendako ordenari jarraikiz egingo du. Horretarako, kontrataziorako proposatzen den hautagai gaindituak aurkeztuko ditu Parlamentuko Erregistro Nagusian, kontratazioaren jakinarazpenaren ondorengo hamar egun naturalen barruan, ondorengo agiri hauek:

a) Jaiotze-aktaren egiaztatzea, edo Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia kautotua.

b) Administrazio Publiko baten zerbitzutik berezia izan ez dela eta funtzio publikoetan aritzeko ezgaiturik edo gabeturik ez dagoela dioen zinpeko aitortpena.

c) Eskaturiko tituluen kopia egiaztatua edo fotokopia (jatorrizkoarekin batera aurkeztu behar dena, kautotua izan dadin) edo eginiko ikasketen ziurtagiri akademikoa edo eta berau eskuratzeko eskubideak ordaindu direlako egiaztatutako ariketak.

d) Halaber, eginkizunak aurrera eramatea galarazten duen gaisotasunik edo akats fisikorik ez izatearen egiaztatzea ere aurkeztu beharko da, Mahaiak adierazten duen sendagileak edo Era-kundeak luzatua.

2. Behar bezala justifikatzen bada, aurreko ataletan aipatzen diren agiriak ezin daitezkeela aurkeztu, Zuzenbidean onartzen den edozein frogaren bidez egiaztatua ahalko da deialdian parte hartzeko eskatzen diren betebeharrak betetzen direla.

3. Ezarritako epearen barruan, eta ezinbesteko arrazoiak tartean ez daudelarik, agiriak aurkeztu ez baditu, hautagaia ezin izango da kontratatua izan, hasierako eskaeran egin duen faltsutasunarengatik erantzukizuna deusetan galarazi gabe. Kasu honetan, kontratazio-proposamena deialdiko 8. Oinarrian aipatzen den zerrendan ondorengo puntuaziorik handiena atera duenaren alde egingo litzateke.

10. Oinarria. Indarrean dagoen arauteriarri jarriki, administrazioarekiko errekurtsioa jarri ahalko da Nafarroako Auzitegi Nagusian, deialdiaren aurka eta baita oinarri hauen eta hautaketa prozedurari buruz Nafarroako Parlamentuko Mahaiak harturiko edozein erabakiren aurka, horiek argitaratu edo horien jakinarazpena jaso eta bi hilabeteko epean.

Deialdi hau gauzatzeko egiten den beste edozein ekintzaren aurka errekurtsio arrunta jarri ahalko da Nafarroako Parlamentuko Mahaian, horiek argitaratu edo horien jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean. Errekurtsio arruntaren ebatzpenaren aurka, administrazioarekiko errekurtsioa jarri ahalko da Nafarroako Auzitegi Nagusian.

I. ERANSKINA

_____ j/ak,
 ____ urte dituenak, _____ N.A.N. daukanak,
 helbidea jakinarazpen ondorioetarako _____(n),
 _____kalean, ____ zenbakian, _____
 pisuan, _____ posta kodea duenak eta _____
 telefonoa duenak,

ADIERAZTEN DU:

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptoreak, administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatutako zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdiaren berri jakinik (.....ko ... zenbakia duen Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua) eta hartan parte hartu nahian, erantsirik agirian, Hirugarren Oinarrian ezarritakoarekin bat, alegatzen diren merezimenduak biltzen dituela, behar bezala antolatuz, baita horiek frogatzen dituzten agiriak eta, haiekin batean, doakion lanbide curriculumare.

Deialdiko bigarren Oinarrian eskatzen diren betebeharrak guztiak biltzen dituela, eskubideak aurkezteko epea bukatzen denean.

Izendatua bada, konpromisoa hartzen duela deialdiko bederatzigarren oinarrian aipatzen diren agiriak aurkezteko, kontratua izenpetzean.

Hori horrela, zuri

ESKATZEN DIZU, idazki hau aurkeztuzat emanda, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko teknikariak, euskara itzultzaileak, administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzeke zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketan onar dezazula.

Iruñean, 1998ko _____aren ____ (e)an

(Izenpea)

II. ERANSKINA MEREZIMENDUEN BAREMOA

1 Deialdiko postuek dituzten eginkizunen antzekoetan aritu izatea edo horrelakoetan zerbitzuak eman izatea, bai administrazio publikoan, bai enpresa pribatuan. Epaimahaiak baloratuko ditu, eta gehienez ere hamar punturekin; Epaimahaiak kontutan hartuko ditu lanpostuen maila, haietan sartzeko zailtasuna, antzinatasuna eta destinoa.

2. Autoediziorako programei buruzko ikastarok: Epaimahaiak baloratuko ditu, eta gehienez ere bost punturekin.

III. ERANSKINA

1. GAIA.- Espainiako 1978ko Konstituzioaren Lehen Xedapen Gehigarria. Nafarroako Foru Errentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko testua: izaera eta esanahia. Egitura eta sistematika. Aurrekariak. Egitea. Edukia.

2. GAIA.- Nafarroako Foru Erakundeak. Nafarroako Parlamentu edo Gorteak. Historia, osaketa eta eginkizunak. Autonomia instituzionala: bere aurrekontuak, erregelamendua eta barneko gobernuak.

3. GAIA.- Foru Diputazioa edo Nafarroako Gobernuak. Eginkizunak. Osaketa. Nafarroako Gobernuko Lehendakaria. Bere hautaketa. Bere erantzukizun politikoa Nafarroako Parlamentuaren aurrean.

4. GAIA.- Nafarroako Foru Komunitateko Gobernu eta Administrazioaren antolakuntza eta egitura.

5. GAIA.- Foru Parlamentariak; eskubide eta betebeharrak. Parlamentari Taldeak.

6. GAIA.- Parlamentuaren antolakuntza: Lehendakaria, Mahaia eta Bozeramaileen Batza-

rra. Batzordeak, Osoko Bilkura eta Batzorde Iraunkorra.

7. GAIA.- Parlamentuaren funtzionamendua: bilkurak, gai zerrenda, bozketak, epeen zenbatzea eta agirien aurkezpena.

8. GAIA.- Ohiko legegintza-jardunbidea. Legegintza-jardunbide berezia.

9. GAIA.- Jabeldurak eta galderak. Mozioak.

10. GAIA.- Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua. Zerbitzuen egitura. Legelari Nagusia. Langileriaren erregulazioa.

11. GAIA.- Nafarroako Kontu Ganbara: ondo-koari buruzko analisi laburra: bere izaera, eginkizunak, antolakuntza eta funtzionamendua.

IV. ERANSKINA

Proba mekanografikoa

a) Azalpena.

Izangaiek makinaz idazteko duten egiazko abiadura neurtzea da proba honen xedea; horretarako, sakaldi kopuru osoari kenduko zaizkio atzematen diren akatsak eta omisioak.

Izangaiek beren idazmakina mekanikoa eramanen dute eta debekatua dago idazmakina elektrikoa eramatea.

b) Probako testua.

Epaimahaiak emanen duen testua kopiatu beharko da. Testu hau literarioa izanen da, eta zenbakiak eduki ahal baditu ere, zailtasunak baztertzeko irizpidea erabiliz burutuko da (zutabeak, tabulazioak, subindizeak, formulak, etab.), parte-hartzaile guztiei zailtasun gradu bera segurtatzeko, idazmakinen ezaugarri teknikoetatik at, baita ariketen puntuaketa objektiboa errazteko ere.

Kopiatzeko hamar minutu emanen dira. Aitzinetik, gutxienez bost minutu utziko dira aukeran, nahi duenak digitazio ariketak egin ditzan.

c) Puntuazioa.

Behar bezala eginiko sakaldian soilik izanen dira konputagarriak, hau da, Epaimahaiak emani-ko originalarekin zehatz-mehatz bat datozenak.

Baliozko sakaldiak:

– Epaimahaiak emanen duen jatorrizkoarekin bat datorren karaktere, tarte edo zeinu bakoitze-ko, sakaldi bat.

Konputagarriak ez diren sakaldiak:

– Jatorrizkoarekin zehatz-mehatz bat ez dato-zen sakaldiak ez dira kontuan hartuko: toki oke-

rrean paratzen diren letrak, tildeak edo zeinuak, errepikatuak zein sobran daudenak.

– Testua kopiaitzeko unean ezin izanen dira akatsak edo omisioak zuzendu eta, ondorioz, aurretik zeudenen gainean bertze batzuk paratzen badira, ez dira baliozkoak izanen.

– Hitz berean hiru edo sakaldi gehiagoko digitazio omisioak edo akatsak, kontaketa ondorioetarako hitz horri zuzen idatzita dagozkion sakaldi guztien ezabapena ekarriko du.

– Izangaiak testuan lerro bat edo gehiago idatzi gabe uzten baditu, idatzi gabeko lerro bakoitzean hamar sakaldi kenduko zaizkio.

Gutxienerako abiadura proba hau gaitzetzeko, baliozko 250 sakaldi minutuko izanen da, eta kanporatuak izanen dira abiadura hori erdiesten ez dutenak.

Gutxienezko maila hori gaitzitzen duten ariketak, baliozko sakaldi kopuruaren arabera, gehienetik gutxienera ordenatuko dira eta hurrengo baremoaren arabera kalifikatuko dira:

–Baliozko 250 s.m.,	5 puntu.
–Baliozko 251tik 260rainoko s.m.:	5,5 puntu.
–Baliozko 261etik 270erainoko s.m.:	6 puntu.
–Baliozko 271tik 280rainoko s.m.:	6,5 puntu.
–Baliozko 281etik 290erainoko s.m.:	7 puntu.
–Baliozko 291tik 300erainoko s.m.:	7,5 puntu.
–Baliozko 301etik 310erainoko s.m.:	8 puntu.
–Baliozko 311tik 320rainoko s.m.:	8,5 puntu.
–Baliozko 321etik 330erainoko s.m.:	9 puntu.
–Baliozko 331tik 340rainoko s.m.:	9,5 puntu.
–Baliozko 341 s.m. edo gehiago:	10 puntu.

d) Proba kronometratzea.

Lehenik eta behin, epaimahaiak orri zuri bat emanen du, izangaiak, aukeran, digitazio ariketak egiteko.

Digitaziorako denbora bukatu aurretik, alde aurreko ariketetan erabili diren orriak bildu eta baliorik gabe utzirik eta ariketari berari hasiera eman baino lehenago, proba hasi eta bukatzeko seinaleak zeintzuk izanen diren adieraziko zaie oposizioileei (bukatzekoak bi denbora izanen ditu, aurreabisua eta behin betiko gelditzearen artean minuto bateko aldea izanik).

Gelditzeko azken aginduari kasu egiten ez diona, bazterturik geldituko da.

Kopiatu beharreko testua eta ariketa egiteko orriak banatuko zaizkie partehartzaileei. Testua lerro bateko tartean kopiatu beharko da eta jatorrizkoari atxikiko zaio zuzen-zuzen.

Espreki ohartaraziko zaie partehartzaileei, behin ariketa hasirik, ez dela inola ere geldituko, eta idazmakinen funtzionamendu zuzena partehartzaileen beren erantzukizuna dela. Beraz, gerta daitezkeen matxurak ez dira inongo ondorioetarako kontutan hartuko.

Ariketa egiten ari den bitartean gerta litekeen edozein gorabehera ebazteko, partehartzaileak ariketa hori zuzentzeko ardura dutenei bakarrik zuzenduko zaizkie.

Epaimahaiak, antolamendu kontuak direla eta, talde desberdinak egin ditzake. Hala egiten badu, talde bakoitzean ariketa hasi baino lehenago, eta beharrezkoa bada, proba horretako testua zein izanen den jakiteko zozketa eginen da.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko sartu-ateratzeko kontura igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.900 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 135 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 170 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta, 12, 3 31002 IRUÑEA
---	--